

**ANALISIA:** Siriaren txingarra itzali ala gasolinaz sutuko da?

DABID LAZKANOITURBURU > 4

**ASTEARI ZEHARKA BEGIRA**

Historia hasi du Iraetako Amillubi proiektuak **MADDI TXINTXURRETA > 11**

2024ko abenduaren 14a | XVIII. urtea • 906. zenbakia  
0,50 euro

**GAUR8**

mila leiho zabalik  
[www.gaur8.info](http://www.gaur8.info)



## ZORTZI PAUSAJE ILLUNBEKO BOROBILARI ERTZAK JARTZEKO

ILLUNBEN DAUKA HITZORDUA GIPUZKOAKO BERTSOGINTZAK. TXAPELKETA FINALERA IRITSI DA; PLAZA BOROBILEAN TXAPEL BOROBILA JOKOAN. ZORTZI FINALISTAK, JOLASERAKO PRONTO, BOROBILA ZARTATZEKO IRRIKAZ. BAKOITZA BERE PAUSAJEZ IRITSI DA ETA HORRETATIK JAITSI GABE SEGITU NAHI LUKE. HAS DADILA FESTA! > 12 Jon URBE | FOKU





**Siriaren txingarra: itzali egingo da ala gasolinarekin sutu?** 04

**Livoniera, joan-etorriko hizkuntza bat Baltikoan** 06

**Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa: elkarrizketak zortzi finalistei** 12

**Olentzero eta Mari Domingiri eskutitza idazteko kontuan hartu beharreko zenbait gako** 22

**Oarso Boleibol Taldeak kirol horretako euskarazko hiztegia argitaratu du** 28

**Juantxo Egañaren behatxulotik** 31



## **SINADURAK:**

03 **Oier Imaz Alias:** Oparotasuna denontzat

10 **Ula Iruretagoiena Busturia:** Erretiroan

11 **Maddi Txintxurreta:** Historia hasi du Iraetako Amillubi proiektuak

21 **Iker Barandiaran:** Paperik baduzu?

26 **Unai Gaztelumendi**

27 **Koldo Sagasti:** Usoaren logika

27 **Asier Aiestaran:** Lider bat behar dugula dio...

30 **Arantza Irastorza Goñi:** Forentse informatikoak datuen uxarrear



{ datorrena } **Oier IMAZ ALIAS**

# Oparotasuna denontzat

Cooperatives build prosperity for all” lema-pean abiatu zen, joan den azaroaren 25ean, New Delhin (India), kooperatiben nazioarteko urtea. Eztabaidagarria da zernolako gaitasuna duten gisa honetako izendapenek hain nahasia eta bortitza ageri zaigun nazioarteko agendan eragiteko. Edo zenbateko garrantzia ematen dion instituzioak berak urteko gaiari (2023a, adibidez, gameluen urtea izan zen, 2016a lekaleena eta 2018an txanda-pasa egin omen zuten...). Aldiz, izendapen honek badu testuinguru bat. Nazio Batuen osoko nagusiak 2023an onartu zuen “Promoting the social and solidarity economy for sustainable development” ebazpena eta 2021ean “Cooperatives in social development” izenekoa.


Horiek horrela, badirudi nolabaiteko *momentum* bat bizi duela kooperatibismoak nazioarteko agendan, eta kooperatiben momentua garapen jasangarriarekin lotuta dagoela. Kooperatiben urtearen irekiera ekitaldian, Antonio Guterresek, Nazio Batuetako Idazkari Nagusiak, erronka garaikideei aurre egiteko kooperazioak duen garrantzia nabarmendu zuen. Kooperatibei onartu zien pobrezia edo bazterkeria gainditzeko eta komunitate handi eta txikien garapena ahalbidetzeko egiten duten ekarpena. Eta kooperatiben ekarpena azpimarratu zuen, garapen iraunkorreko helburuen implementazioak suposatzen duen erronkari aurre egiteko.

Kooperatibek, berez (eta legez), lan duina eta aberastasanaren banaketa justuago bat sustatzen dute. Eta hori egiten dute kooperazioarentzat lagunkoia ez den mundu lehiakor batean. Batetik, giza garapenera-

ko tresna dira. Behar nabarmenak dauden momentu eta lekuetan egiten dute ezinbesteko ekarpena. Hau da, negozio aukerarik ez dagoenean, aukera eskaintzen dute komunitateen, herrien eta eskualdeen ekonomia martxan jarri eta bizirik mantentzeko. Bestetik, langilearen parte-hartzea maila gorenera daramaten enpresak dira. Lan duina (burujabea) eta aberastasanaren banaketa justua (berdinzalea) oinarri duen hazkundera sustatzen duten enpresak dira kooperatibak. Baina horrek ez ditu egiten jasangarriagoak bere horretan.

## Nazio Batuen Erakundeak kooperatibei onartu zien pobrezia edo bazterkeria gainditzeko eta komunitate handi eta txikien garapena ahalbidetzeko egiten duten ekarpena

Bistan da, kalitatezko enpleguak sortuz eragiten dute kooperatibek ongizatean. Baina ez da nahikoa. Enpresa diren heinean, arduraz jokatu behar dute; ingurunearekiko, gizartearekiko, etorkizunarekiko... Bestela esanda, momentuari eusteko kooperatibek eragiteko gaitasuna erakutsi behar dute, kooperatibetan egituratzen den komunitatetik haratago. Nazio Batuek gaitasun hori, eta beste asko, onartzen dizkiete kooperatibei eta, oro har, ekonomia sozial eta solidarioan kokatzen diren eragileei. Eskatera, aldiz, estatu buru eta gobernuei egiten die: horretarako baldintzak (instituzionalak, normatiboak, finantzarioak) sortu behar dira. •



{ analisisia } **Dabid LAZKANOITURBURU**

## Siriaren txingarra itzali ala gasolinaz sutuko da?

11 egun iraun du 54 urte luzez agintean egon zen eta 2011ko matxinada Errusiaren eta Iranen laguntzarekin suntsitu zuen erregimenak. Demokrazia nahiaren mantak txingarra amatatuko al du? Edo islamo-jihadisten gasolinak sua berpiztuko du?

**I**nork gutxik espero zuena gertatu da Sirian. 11 zenbakiak ugariaren esanahia du euskaraz, baina 11 egun baino ez dute behar izan jihadistek, salafistek eta islamistek Idleb iparraldeko eskualdeko matxinadaren gotorlekuan osatu zuten koalizioak Damasko hiriburura iristeko eta 54 urte luze iraun duen Al-Assad dinastia kriminalaren erregimena azukre koskor bat bezala urtzeko.

2011ko otsail-martxoan, Saharan eta Aljerian sortu zen «Udaberri Arabiarraren» olatuan, ikasle talde batek «Bashar al-Assad Kanpora» margotu zuen eskolaurrean, Siriako Deraa hegoaldeko hirian. Mujahabat polizia politikoak atzeman, jipoitu eta torturatu egin zituen gazteak. Jendea kalera atera zen eta siriarren haserrea, batez ere gehiengo suniarena, baina ez hori bakarrik, Siria osora hedatu zen, Homsetik hasita Hamara, Kurdistandik eta drusoien eskualdetik Damaskoraino. Askatasuna eta demokrazia aldarrikatzen zuen jendeak. Jaki-na, hitz potoloak dira hauek eta bakoitzak bere irizpidea eman eta eska diezaieke. Baina hori zen, funtsean.

2000. urtean dinastiaren ondorengotza hartu zuen Bashar al-Assadek ez zuen inolaz ere horrelakorik espero; boterera iristean sasi prozesu demokratikoa agindu zuen, jendea tranpan eroria zela pentsatuta. Hori gutxi balitz, Israelen akuilutzat zuen bere burua erregimenak, nahiz eta errealitatean funtsik gabeko etsaia bilakatu.

Ezusteak eta larritasunak bultzatuta, militarrek eta poliziak atera zituen kalera matxinadarekin amaitzeko. Errebolta gerra zibilean urtu zen. Hala ere, 2012an, Armadan desertzioak jota, eta buruzagien aurkako eraso batzuen ondoren, gerra galtzear zegoen erregimena.

Bere laguntzan joan zen orduan Iran, bere Guardia Iraultzailearekin eta Libanon (Hezbollah), Afganistanen eta Iraken bere aginduetara ziren miliziak bidaliz.



2014ko abuztuan, Damaskotik gertu dagoen Ekialdeko Ghuta auzo matxinatuari bonba kimikoekin eraso egin eta gero, Obamaren AEBek amore eman eta agindutako zigorra bertan behera utzi zuten. Aukera ikusi eta profitatu egin zuen Putinen Errusiak, eta Mediterraneoaren kostaldean bi base militar eskuratu ordez, bere indar militar guztia erabili zuen matxinoen eta bere aldekoen aurka.

Izugarrizko sarraskiak egin ostean, erreboltaeriak Idleb hirian eta hegoaldeko bazter batean babestu ziren Turkiaren laguntzarekin.

Ordurako matxinadak gero eta kutsu islamistagoa, salafistagoa eta jihadistagoa zuen. Berez bazuen joera hori, oposizioko alderdi bakarra eta indartsuena Anai Musulmanen kofradia izanik, eta ordura arte boterean egon zen Al-Assadtarren dinastia alauia (xiia) delakoa, eta beti mespretxatu izan duelako gehiengo suni txiroa.

Erregimenak, hala ere, berea egin zuen matxinadaren barnean zorrozkeria islamiarra areagotzeko. Protestak 2011n hasi eta berehala aske utzi zituen Iraketik Siriara joan ziren ehunka jihadistak eta salafista preso. Bere helburua matxinada terrorismoarekin nahastea zen, eta erabat lortu zuen. Nola ez, Saudi Arabiaren, Emirerrien eta Turkiaren laguntza izan zuen eskualdeko herrialde hauen interesa ez delako matxinada demokratiko eta akonfesionala elikatzea.



Bide batez, erregimenaren errepresioak matxinada militarizatu egin zuen protesta herrikoiak ezabatuz.

Iraketik iritsi zen Estatu Islamikoaren eta bere kalifa-herriaren hasierako arrakastak arrazoi gehiago eman zion erregimenari munduko kantzilerretan matxinatuen ganako beldurra uztartzeko.

Kurduak eta Irakeko milizia xiiek kalifa-herriaren bi hiriburuak (Raqa eta Mosul) askatu ondoren, Damaskok garraipen osoa aldarrikatu zuen. Hala ere, egun hauetan begibistan geratu den moduan, Errusiaren eta Iranen laguntzarik gabe ez zuen egun bat ere iraungo.

2018tik joan zen astera arte fikzio batean bizi zen Siria. Ekonomikoki guztiz ahulduta zeuden, errusiarrak eta irandarrak ziren jaun eta jabe, baina erregimenaren osasun ona saltzen zuten han eta hemen. Ordurako tutoretzapean zegoen pazienteak gaixorik zegoen zantzuak atzematen hasiak ziren. Turkiak ahuldade hori baliatu zuen Errusiaren

Aurreko argazkian, Bashar al-Assad presidentearen irudiari muzin egiten dio miliziano batek. Gainera irudian, jendetza Damaskon erregimenaren erorketa ospatzen.  
Europa Press

oniritziarekin Siriako Kurduen Rojava eskualdea inbaditu (Afrin) eta erasotzeko.

Horretarako, matxinadaren hasieran, desertoreek eratu zuten Siriar Armada Askeak osatu zituen brigadak erabili ziren, eta erabiltzen ari da, kurduen aurka. Egun, Armada askearen ondorengoak, Siriako Armada Nazionala (SNA), Ankararen morroi bilakatu dira.

Idleben, ordea, ez ziren boteretsuenak. Al Qaeda Sirian sortu zituen bere sukurtsalak, Al-Nosra Fronte jihadistak, eta hainbat talde salafistekin HTS koalizioa osatu zuen (Sortaldea Askatzeko Erakundea, arabieraz). Erakunde jihadistak salafista hau egon da agintean iparraldeko eskualdean eta, Errusiaren eta erregimenaren ia eguneroko aire-erasoek bere gobernu osotasunean eratzeko aukera eman ez dioten arren, kezka sortzen duten zantzu batzuk atzeman izan dira.

HTS koalizioa eta SNAko brigadak, gehienak islamistak, irailaren 27an Idlebetik

eta Alepoko eskualdean zuten gotorlekutik atera eta erregimenaren defentsak urruntzeko asmotan martxan hasi ziren bonbardaketak ekiditeko.

Aurrera jarraitu eta bi egunera, Aleppo Siriako hiriburu ekonomikoa kontrolpean hartu zuten. Handik hiru egunetara Hama hirian sartu ziren defentsa ahula gaindituz. Haman 20.000 biztanle erail zituen 1981ean Al-Assad aitak, Anai Musulmanen matxinada politikoa eta armatua ezabatu ondoren. Beste hiru egunetan Homs hirian ziren defentsa ahula gaindituz. Haman 20.000 biztanle erail zituen 1981ean Al-Assad aitak, Anai Musulmanen matxinada politikoa eta armatua ezabatu ondoren. Beste hiru egunetan Homs hirian ziren defentsa ahula gaindituz. Haman 20.000 biztanle erail zituen 1981ean Al-Assad aitak, Anai Musulmanen matxinada politikoa eta armatua ezabatu ondoren.

Erregimenarena eginda zegoen. Ekialdeko Deir Ezzorretik atera eta Damaskon babestu zen geratzen zen Siriako Armada.

Ordurako Errusiak eta Iranek hiltzen uzteko erabakia hartuta zuten. Moskuk nahikoa du Ukrainarekin. Iran estutzen ari da Israel eta Hezbollah geratzen zaizkion bere indar guztiak Libanon behar ditu.

Al-Assad semea Putinek babesean hartu du Errusian.

Sirian behin-behineko gobernu iragarri du HTSk.

Siriar asko pozik daude, baina bide batez siriar asko beldur dira. Erregimen kriminala atzean utzi dute. Aurrean dutena hobe edo are okerragoa izango ote den baikor-kezkatu daude.

Siriak, kurduak barne, mezezi du bakea, demokrazia eta elkarbizitza. Lortuko al du? Utziko al diote?

# LIVONIERA

## Joan-etorriko hizkuntza bat Baltikoan

📁 **HIZKUNTZA** / Karlos ZURUTUZA

**L**ivoniako arrantza-leek bazekiten arrainek euren hizkuntza ulertzen zutela. Ez, lo falta ez zen, inondik ere, livoniarren burua nahasten zuena. Itsasoko jende hark sardinazarrak eta izokinak engainatzeko trikimailuak erabiltzen zituen. Kodeak behar ziren, esaterako, sarea ababorretik zihola esateko, beste itsasontzi bat istriborretik zetorela ohartarazteko... Bide batez, ez zuten sekula «argi», «itsasargi» edo argitasunarekin loturiko beste edozein hitz aipatzen. Jakina da: gaua zenbat eta ilunagoa izan, orduan eta handiagoa izaten da harrapaketa.

Iragan hamarkadan hiltzat jo zuten, azken hiztuna orduan zendu zelakoan. Baina batzuek hizkuntza ikasten jarraitu dute, eta hamaika liburu, kanta eta ipuin gelditzen dira. Gainera, baliteke «azken» hiztun hura azkena ez izatea. Garrantzitsuena, baina, zera da; hiztun berriak (eta jaioberriak!) dituela gaur.

Arrantza iheskorra bezain funtsezkoa izan ohi zen livoniarrentzat: Baltikoko hareatza hartan ez zen patatarik, azarik edota besterik haziko. Jateko zerbaitek egotekotan, arraina zen beti. Bazuten esnearekin nahasten zuen erre-zeta bat ere. Munduak ez du halako platerik dastatu.

XX. mendearen bigarren erdia hastear zegoela, gerra global eta izugarri baten ostean, Stalinekin kostalde hori sobietar inperioaren mendebaldeko muga izango zela erabaki zuen. Georgiarrak hesi bat altxarazi zuen kostalde hartan, zaintza-dorreak, alanbre-hesiak eta antzekoak tarteko.

Renate eta Janis livonieraz ari dira hazten beren bi alabak.  
Janis MEDNIS-EN BILDUMA

Arrantza egitea debekatu ez ezik, itsasora gerturatze hutsa ere kartzelarekin zigortu zitekeen. Honela, livoniarrek barrualderantz, basoaren babeserantz, eraman zituzten beren ontziak. Laster itzuliko zirelakoan zeuden, zoroaldi hark ezin zuen luze jo. Hala pentsatu zuten. Baina debekuak luzeegi jo zuten. Itsasora itzuli ezinik, hirietara joan ziren asko. Gulag-era ere milaka eraman zituzten kostalde hartatik.

Horrela akabatu zuten, kasik, Baltikoko itsasiek ulertzen zuten hizkuntza.

Baiba Suvcane oraindik amaren sabelean zegoen hori guztia gertatu zenean. Rigan jaio zen, Letoniako Sobiet eta Sozialistaren Errepublikako hiriburuan. Dioenez, livoniarren exodoak haraino eraman zuen bere ama. Txikia zela, Baibak letoniera ikasi zuen, eta, jakina, errusiera. Livoniera, berriz, aitona-amonei entzuten zien udako oporretan, apenas deus ulertu gabe. Dorreak eta alanbre-hesiak bertan zeuden oraindik, baina hondarretan hanka-hutsik korri egitea sekulako plazer bilakatu zen Baibarentzat. Horrekin amets egiten zuen Rigan zegoela. Ikastea ere gogoko zuen neska begi-urdinak. Geografian lizentziatu ostean, han-hemenka lan egin zuen, Letoniako Antzoki Nazionalen administrari postu hura lortu zuen arte. Duela hamabost urte erretiratu eta bere «udako» aberrira, Livoniara, itzuli zen. Kolka herriko eskola-maistren blokean apartamentu bat erosi zuen orduan; bertan hartu gaitu gaur. Erretiroa hartu zuenetik, bere herriari buruzko hainbat liburu idatzi ditu.





**BERE HERRIA**

Erdi Aroko Livoniak gaur egungo Estoniaren hegoaldeko erdia eta Letoniaren iparraldeko eremua hartzen zituen. Dena den, livoniarrek ez dira inoiz asko izan. «Pagano hauek oso ausartak eta trebeak dira guduan», zioten beraien buruz XIII. mendeko kronikari errusiarrek. 30.000 baino gehiago omen ziren garai hartan, kalkulu hori eta datozenak nola egin ziren ez dakigun arren. Kopurua edozein zela ere, beherantz jo du beti. Ez da harrizkoa. Mendek igaro ahala, elkarren atzetik pilatu ziren etsaiak: daniarrak, alemaniarrek, prusiarrak, poloniarrek, suediarrek, errusiarrek... Izurriteek eta goseteek ere gogotik jo zuten, eta bizitzeko leku atseginagoak zeuden aukeran beti. XIX. mendean erdialdean 2.500en bueltan ziren, eta gehienak gaur egungo Letoniako iparralderantz zeuden.

XX. mendek ekarri zuen erabateko gainbehera. Lehen Mundu Gerran, alemaniarren okupazioak exodo erraldoia eragin zuen. Antza, okupatzaileek livoniarren etxe guztiak erre zituzten bat izan ezik (oraindik zutik dago eta bisitatu daiteke). Zenbaitzuk itzuli ziren azken suteak itzali zirenean, baina Bigarren Mundu Gerran piztear zegoen ordurako. Berrito ere, erbestera jo zuten askok. Besteak beste, Alemaniako armaden edo sobietar armaden derrigorrezko errekrutamendua saihestea zuten helburu. Sinesgaitza bada ere, Baltikoko gazte askok bi uniformeak jantzi zituzten, euren lurraldea eskuz aldatzarekin batera. Livoniarrek oso gutxi ziren ordurako, Kolka lurmuturraren alde bietako herrietan sakabanatuta zeu-

den nagusiki. Baltikoko urek eta Rigako golkokoek bertan egiten dute talka. Baibak gogoratu duenez, Kolka ez zen inguruko herriak bezala hustu. Bertako arrantza prozesatzeko lantegi kolektiboak, “koljoz”-ak, eutsi zuen herriko biztanleria, eta horrekin batera, hizkuntzaren azken hondarra.

Letoniera familia indoeuroparreko hizkuntza da, baina finlandiera eta estoniera dira livoniarren ahaide hurbilenak. Azken bi hauekin duen

**Erdi Aroko Livoniak gaur egungo Estoniaren hegoaldeko erdia eta Letoniaren iparraldeko eremua hartzen zituen. Dena den, livoniarrek ez dira inoiz asko izan**

**Stalinek arrantza debekatu zuen Sobietar Batasunaren mendebaldeko muga horretan, eta livoniarrek hirietara joan behar izan zuten. Gulag-era ere milaka eramane zituzten**

Seinale elebidunak Kolkan. Kostaldeko herria livoniar hizkuntzaren azken babeslekuetako bat izan zen. Karlos ZURUTUZA



harremana estua izan da beti. Baibak dioenez, finlandiar eta estoniar ikertzaile eta idazleek dokumentatu zuten livoniera. «Haiei esker baino ez dugu zerbait jasota gaur», bota du. Hurbiltasun geografikoak ere lagundu zuen. Livoniar baten zat errazagoa izan da beti bere txalupaz Saaremaa estoniar uhartera iristea, oso urrun dagoen Rigara joatea baino. Eta alderantziz. XIX. mendean, neguko izotza urtzarekin batera, estoniar nekazariak eta abeltzainak itsasontziz iristen ziren livoniar kostaldera. Txerriak eta zaldiak zeramatzen, eta batzuk negura arte gertzen ziren, edo betiko. Haien ondorena alkoholaren kontrabandoan murgildu zen iragan mendeko 20ko hamarkadan. Saaremaa uhartekoek milaka botila vodka hondoratzen zituzten Baltikoan, buia bati lotuta beti. Honela, livoniarrek jakiten zuten altxorra non ze-

goen. Lur idorrean ez, itsasoan aurkitzen zuten ogibidea orduan ere.

Nolanahi, lotura kulturalak aipatu ditugu lehenago. Estoniarrek lez, livoniarrek Finlandiako ereserkiaren melodia bera hartu zuten berea asmatzeko. 1923 hartan Livoniar Elkartea izeneko erakundea sortu zen. Hizkuntza eskolak, liburuak eta musika emaldiak izan ziren «livoniar udaberriak» emandako loreak. Eta ez dezagun kultur etxea ahaztu. «Livoniarrek eraiki zuten, finlandiar, estoniar eta hungariar herrien laguntzaz». Hala dio oraindik eraikinaren sarreran dagoen plaka batek. 1939an inauguratu zen Mazirbe herrian, sobietar okupazioaren bezperan. Urte asko igaro ziren berriro martxan jarri zen arte. Rigan zeuden livoniar gehienek urtebetetzeak, ezkontzak edo beste edozein aitzakia baliatzen zituzten el-



kartzeko eta beren hizkuntzan hitz egiteko. KGBren ziega batean bukatzen ziren maiz familia ospakizun haiek.

1989ko abuztuan, livoniar bandera hiru-kolorea —urdira, zuria eta berdea— Finlandiako, Estoniako eta Hungariakoekin batera igo zen Mazirbeko kultur zentroan. Hesitutako eskualde hartan, aspaldiko lagunek eta senideek elkar ikusi zuten berriro. Bi urte geroago, Letoniak bere independentzia berreskuratu zuen. Livonieraz zekitenak, alabaina, ez ziren 200era iristen. Hizkuntza horretan pentsatzen zuen azken izakia 2013an hil zela diote. Grizelda Kristina zuen izena. 103 urte zituela, Kanadan egin zuen osagure mundutik.

«AURRERAPAUZO ITZELAK»

Autobus bakarrak lotzen ditu Kolka eta Riga egunero. 150 kilometro horiek zeharkatzeko lau ordu behar dira, baina ez dago aspertzerik trabesian

zehar. Istriporrean, hamaika arrain ketu postu txiki sakabanatzen dira; ababorretik, pinudi artean, itsasoa ikus daiteke. Letoniako periferiatik hiriburuko merkaturainoko bidaia da. Handik, hogeimitu baino ez dira, oinez, Livoniar Institutura. Oso zentrikoa da, Biologia fakultate zaharraren eraikinean dago, Rigako kanalaren ertzean. 2018an sortu zuten, Letoniako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren babespean. Bere webguneak dioenez, «livoniar kulturaren eta hizkuntzaren

**Letoniak bere independentzia berreskuratu zuenean, 1991n, livonieraz zekitenak ez ziren 200era iristen. Hizkuntza horretan pentsatzen zuen azken izakia 2013an hil zela diote**

**«Ez da inoiz hitz egin 'gutaz eta haietaz'. Livoniarrek Letoniako parte organiko eta integrala dira», diosku Livoniar Institutuko presidente Valts Ernstreits-ek**

Ezkerrean, Kolkako "koljoz"-aren kaia zaharretik paseoan. Eskuinean, Kuldi Mednis, lau urteko livonierazko hiztuna eta liburu bateko protagonista.

Karlos ZURUTUZA - Janis MEDNIS

ikerketari eskainitako munduko erakunde bakarra da».

«Ez da inoiz hitz egin 'gutaz eta haietaz'. Livoniarrek Letoniako parte organiko eta integrala dira, denok gara letoniarrek», diosku institutuko presidente Valts Ernstreits-ek bere bulegotik. Kokospeko urdina du 50 urteko hizkuntzalaria, eta tatuajez josita ditu ezkerreko besoa eta eskua. Entzun dugunez, egun livonieraz ondoen hitz egiten duen pertsona ere bada. Ernstreits-ek hogeitabat hiztun «jantzi» direla dio, eta 1000-2000 direla beren burua livoniartzat hartzen dutenak (beren pasaportetan hala dago jasota). 1991ko herrialdearen independentziaz «aurrerapauso itzelak» eman direla azpimarratu du. «90eko hamarkadaren hasierara arte, letoniar gehienek uste zuten livoniarrek XIII. mendean desagertu zirela. Gaur, ordea, oso zaila da aurkitzea oraindik gure artean daudela ez dakien letoniarrik. Ez da

kontu makala: elkarrizketa ez duzu laburpen historiko batekin hasi beharrik; harira joan zaitezke zuzenean», azaldu du Ernstreits-ek, irribarre batez.

«Drama bat Livonian» eleberrian, Julio Vernek alemaniarren eta eslaviarren arteko liskarrak ditu abiapuntu, baina bretoiak ez dio livoniarren berezitasunari erreparatzen. «Oh, Riga! Nork egin zaitu hain eder? Livoniarren esklabotzak. Baina iritsiko da eguna: alemaniarrei gaztelu bat erosi eta dantza eginaraziko diegu harri erraztatuetan». Ez da Kolkako seme bat mintzo dena, aristokrata errusiar bat baizik. Munduko bazterrak eta jendea xehetasun osoz deskribatzen zituen Verne ere livoniarretaz ahaztu zen.

Dagoeneko, Ernstreits-ek esan digu livoniar hizkuntzak eta kulturak arrasto handiak utzi dituztela Letonian. Hori gogoraraztea da, hain justu, bere institutuaren zereginetako bat. Datu bakar batez ilustratu



digu: letonierak hitz bakoitzaren lehen silaban dakar azen-tua —finlandiera eta estoniera bezala—, eta hori, besteak beste, livonierari zor dio. Livoniar Institutuak baliabide digitalak ere ekoizten ditu, eta Kolkako kaleetan ikusi genituen seinale elebidunak ere Ernstreits-en taldeak paratu zituen. Uda oro, hizkuntza ikasteko kanpamentua antolatzen dute: zazpi eta hamazazpi urte bitarteko gazteek livonieraren oinarriko eskolak jasotzen dituzte bertan.

«Hizkuntza biziberritzea oso erronka zaila da. Hizkuntza ikasi ez ezik, kantik, liburuak, hiztegiak... denetarik sortu behar da bere garapenerako ingurune egokia izan dezan», dio adituak.

Ahaleginak ahalegin, Baibak gogorarazi zigun bizilagunak izan zirela aitzindariak. Estoniako Tartuko Unibertsitateak 1920an argitaratu zituen lehen bost eleberririk livonieraz, bai eta material etnografiko biltuma bat ere. XX. mendearen bigarren erdian, Estoniako Hizkuntza eta Literaturaren Institutua erreferentziatzeko gune bilakatu zen livonieraren ikerketan. Hazi hura sendo ernatu zen eta, gaur egun, estoniar gazte askorengan piztu da interesa. Tartukoa den Britt Kathleen hizkuntzalariak doktoretza ikasketak bukatu berri ditu. Birramona livoniar bat aurkitu zuen bere zuhaitz genealogikoa egiten ari zela. Horrek piztu zuen bere jakin-mina.

«Estoniarra izanik, livoniera ulertzeko gai nintzela konturatu nintzen. Nire kabuz ikasi ondoren ia dena ulertzen dut, baina oraindik ez naiz hitz egiten ausartzen», onartu digu gazteak, Tartu erdiguneko kafetegia batean. Azken sei hilekoan, hamabost livoniera ikasle izan dira bere unibertsitatean. Liburu

berriak argitaratzeaz gain, «Livoniar Ondarearen Eguna» ere ospatzen hasi dira bertan.

Hizkuntzari bizi-euskarria kendu ahal izango zaio inoiz? Kathleen-ek baietz uste du. Edonola, baliabide gehiago behar direla azpimarratu du, ingelesa-livonierako gramatika bat, horien artean. «Neurri handi batean, Letoniako Gobernuaren esku dago. Hizkuntza ikastetxeetako curriculumean sartzea aurrerapauso handia izango litzateke, aukerako irakasgai gisa bada ere», dio estoniarrek.

#### URREZKO NESKATXA

Beharbada, orain arteko urrats ausartenetako bat Riga-ko golkoaren iparraldekoertzean egin da. Mednis-tarren berri aspaldi izan genuen; irrikarekin ginen beraiekin hitz egiteko. Janis eta Renate Mednis livoniar jatorriko letoniarrek dira. 2019an ezkondu ziren eta, urte bat geroago, pandemiaren erdian, Kuldi jaio zen. Erabakia hartua zuten ordurako: alaba livonieraz heziko zuten. Renatek denbora zeraman hizkuntza ikasten bere senarraren laguntzaz.

Helsinki bizi direnez, bi-deokonferentziaz hitz egin dugu beraiekin. Janisek dio txikitatik elikatu duela livonierarekiko grina. Bere kasa ikasten hasi zen, ate, leiho eta ahal zen euskarri guztietan post-it-ak itsatsiz. Azken urteotan, hainbat kultur proiektu eramanez aurrera, hots, Livoniako kostaldeko argazki-liburu bat edota kanta bilduma bat. Bestela ere, komunitatean jakin-min handia piztu zuen 2022an argitaratu zuen liburuak. Kūldalāpš («Urrezko neskatxa» livonieraz) zuen izenburua, eta Kuldi bere alabari dedikatuta zegoen.

«Letonierako eta livonierako aditu batzuk ere parte hartu zuten. Erronka handia izan arren, elkarlanean lortu genuen», dio Mednisek, harro. Gramatika apunteak daude kapitulu bakoitzaren amaieran: «Egun on!»; «Ez egin negar!»; «Kanpoan bero egiten du»... hamalau dira guztira, denek letonierazko itzulpena dutelarik. Mednisen aburuz, liburuak haurrek eta gurasoek elkarrekin erabili dezakete hizkuntza ikasteko.

«Livoniera iraganeko kontu hutsa balitz bezala hitz egiteaz nekatuta nago; 2013an azken hiztuna hil zeneko istorio hori... Neronek jatorrizko hiztun bat ezagutzen dut. Maija Norenberga du izena. 70 urte ditu eta Sikrags herrian bizi da, Kolkatik gertu. Beti livonieraz hitz egiten dut berarekin. Lagun mina dut, baina ez da gehiegi irteten eta ez ditu elkarrizketak gustuko», diosku Mednisek.

Dakigula, Kuldi da beste «jatorrizko» hiztun bat. Berro-

**«Hizkuntza biziberritzea oso erronka zaila da. Hizkuntza ikasi ez ezik, kantik, liburuak, hiztegiak... denetarik sortu behar da bere garapenerako», dio Ernstreits-ek**

**«Estoniarra izanik, livoniera ulertzeko gai nintzela konturatu nintzen. Nire kabuz ikasi ondoren ia dena ulertzen dut, baina ez naiz hitz egiten ausartzen», dio Britt Kathleen gazteak**

geialdi baten erdian iritsi zen mundura eta, momentuz, ez dago bere hizkuntza ulertzen duen haur-eskolarik. Baina liburu bateko protagonista da Kuldi. Orriak pasa ahala, deskubritu berri duena ere ikus dezake bertan: hondartza (jougo), itsasoa (mer), zerua (tovaz) eta Livoniako kostaldeko behi urdin eta xeble horiek (siņņi niēm). Edota urtebetetzeko tarta hori, bere izena txokolatezko letretan idatzita duena: «Kuldi».

Liburuak baino, paperezko ispilua dirudi. Baina orriak gehitzea behar du oraindik.

Rigan erretiroa hartu ostean, Baiba Suvcanē Kolkara bueltatu zen. Bere herriari buruzko hainbat liburu idatzi ditu orduetik. Karlos ZURUTUZA





**Ula IRURETAGOIENA BUSTURIA - @ulissima5**  
Arkitektoa

## Erretiroan

**A**rkitekto erretiratuen bazkari batean murgiltzea beste aro bateko atea gurutzatu izanaren parekoa da. Atea zeharkatu orduko zuri-beltzeko irudietan ikusten hasia da; agian beste profesional batzuekin egoera berdintsua errepikatzen da, ez dakit. Burusoil eta ile zuri buruak eta bizardunak dira nagusi, batzuk panazko frakekin, besteak beltzeko jakekin, ez dute aitona itxurarik. Janzkeraren estereotipoak agintzen zuenean legez arkitekturan, profesio eta tribu jakin bati lotua, egun beste profesioetan gehiago nabari dena, esan diseinatzaile edo artistaren kanpo-irudi pentsatua. Garai hartan homosexualitatea gizon nabarmenkeriarekin lotua zegoen eta lan munduan emakumezkoekin gutxi tratatzen zuen belaunaldiak. Golfa, ehiza eta nabigazioa hobby izan dute askok. 50-60ko hamarkadako arkitekto esanguratsuek diseinaturiko altzariak dituzte etxean, eta marrazteko luma bat eskuan, edadeak galarazi ez duen eskuz marrazteko trebezia adierazteko.

Arkitektura profesioaren bokazioaz dihardute, arkitektura maite dutela erraz ahoratzen dute. Erretiroan dauden gehienak beharturik dira lan bizitza uztera; lanean jarraitzeko aukerari eusten diote batzuek, inproduktibitatearen bizitza onartu gabe, arkitektura egin gabe zailtasunez bizitzen. Gehienentzat arkitektura beraien identitatea da, satisfazio handiko aktibitatea, beraien zeregina entzuna eta apreziatua izatera ohituak daude. Atzera begirakoa egitean, harro agertzen dira beraien jardunaz. 80-90eko euskal paisaia eraikiaren egileak dira. Etxebizitza eraikin asko eraikitako arkitekto belaunaldi bat, arkitektura unibertitate publikoaren lehen irakasleak. Bulego profesionalen zuzendariak izandakoak, bulegoari izena



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOIENA BUSTURIA

eman diotenak bere izen-abizenekin. Arkitekto kolektiboa txikia zen garaian eraiki zuten, ia kompetentziarik gabe, lana denontzat zegoenean. Tokatu zitzaien garaian hiri lursail asko hutsik zeuden, eraikinak egiteko prestu. Diru asko egin zuten eraikitzen eta elite bat bilakatu da, erosotasun ekonomikoarekin erretiroan.

**Oraingo arkitekturaren ildoari mesfidantzaz edo gutxiespenarekin begiratzen diote.** Ez dute ulertzen. Arkitektura soziologia, antropologia, filosofia eta politikarekin nahastea arkitekturaren materialtasun eta estetika lana gutxiatea dela irizten diote, foku sozialak arkitekturaren lana distraitzen duelakoan. Gaur egungoak agertzen duen gutxi eraikitze-ko aukera dramatikotzat jotzen dute, arkitekturarako beste irtenbiderik ikusi gabe. Adimen artifizialaren iraultza arkitekturan biziko ez duten garaia izango dela jakitun, ez dute interesik agertzen.

Samurtasuna dariote garai bateko harropuzkeriaren gorputz gutxiagotu horiek. Gustura eraikiko nuke etxe orratz bat, esaten du erretiraturiko batek. Erakusketa bat prestatzen ari dira nire lanekin, dio beste batek. Itzalitako gorputzak luze gogorarazteko azken oihiak. •



{ asteari zeharka begira } **Maddi TXINTXURRETA AGIRREGABIRIA**

# Historia hasi du Iraetako Amillubi proiektuak

**Z**estoako Iraeta auzoan badago kale berezi bat, etxe-ilara biren artean. Erdi Arotik XX. mendera arte herrigunetik aldentuta dagoen landa-auzo honetan garatutako industria-jardueren oinordetza bizia da. Hiru burdinola ziren bertan 1750 aldean, hirurak ere Granadako dukearenak eta, bi hamarkadaren buruan, instalazio horiek fanderia bilakatu zituzten siderurgia tradizionalaren gainbehera iristerako. Fanderiak, Estatuarekin zuen kontrata bati esker, burdin flaskoak ekoizten zituen, Amerikako meategietan lortzen zen zilarbizi edo merkurioa garraiatzeko. Langile dezente hartzen zituen -50 pertsona aritzen ziren lanean urteko bost hilabeteetan-. Horregatik, beharginentzako kolonia bat sortu zuten, halako lehenengoa Gipuzkoan.

Bi etxe-ilara egin zituzten eta han hartu zuten bizileku langileek. Egun, etxe bakoitzak bere izena erakusten du ateburuan: Dumbax, Kamiñerokua, Motxa-enea, Zabal-Etxe, Akertza, Lokatza, Otxua... Ertz batean, Granero etxea zegoen; bertan ordaintzen zuten errenta langileek. Olaizola eta Uria izena du kale horrek, 1953ko urriaren 14ko uholdeetan autobus batean buxatuta geratu ziren pertsonen laguntzeko asmotan bizia galdu zuten Jose Olaizola Arriaran eta Jose Uria Olaizola gazte iratarren omenez.

Bizirik da historia Iraetan. Bertan da 1842ko data daraman garbategia, Santa Ines basiliza, XX. mende hasieratik bertako sukaldaritza eskaintzen duen Errota edo Iraeta jatetxea, eta 1936ko gerra garaian ekinean jardun zuen "Txikito de Iraeta" pilotariaren izena hartu zuen frontoia. Antza, bere familia izan zen Iraetako Jauregian, errekarren beste aldean, bizi izan zen azkena. Egun, sasitzak janda eta erorita dago eraikina. Au-

zotar helduek kontatzen dutenez, bertan jolasten ziren umetan, harik eta "Fuego Eterno" (1985) pelikula-  
ren errodate zabarrak jauregi dotoreari kalte konpo-  
nezinak egin zizkion arte.

Egiatzko suak hartu zuen, 2022ko urtarrilean, Urola errekarren meandroak marrazten dituen zelai kilometrikoen atzean, auzoaren eta Aizarnazabalen artean dagoen Amilibia Txiki baserria. Auskalo zer historia eta zenbat istorio jango zituen sute hark... Hala ere, 2023ko abenduan, Biolurreko jendeak bizitza berri bat iragarri zion baserriari.

«Suak hartu zuen Amillubi baserria. Auskalo zer historia eta zenbat istorio jango zituen sute hark... Baina 2023ko abenduan Biolurrek bizitza berri bat iragarri zion baserriari».

Amillubi Taupaka egitasmoa sortuta, jendetza-  
ren ekarpen eskuzabalararekin, baserria eta bere lur-  
rak kolektiboki erosteko erronka abiatu zuen Biolurrek. Hel-  
burua, proiektu agroekologiko komunitario bat bul-  
tztatzea, laborariak, kontsumitzaileak eta lur-  
rak zainduko dituenak. 2,5 hektarea nekazaritza-lur, 1,5  
hektarea belardi natural eta bost hektarea baso ditu  
horretarako, eta eskulan boluntarioarekin ari dira lu-  
rrok lantzen. Luzera begira, inguruan daude 26 hekta-  
rea zelai, laborantza duina, rara avis bat egun, jende  
askorengana zabaltzeko aukera ematen dutenak.

Pausoz pauso, halere. Elikadura burujabetzara bi-  
dean, urtea bete berri du Amillubi proiektuak. Gaztea  
da oraindik, baina historiak nonbaitetik hasi behar du  
eta, ikusi daitekeenez, bizi-bizirik da Iraetan. Zorion-  
ak, Amillubi! •

# GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

## Illunbeko finala, ezereen amaiera baino, bidearen puntu eta jarraia

📁 **BERTSOLARITZA** / Amagoia MUJKA • Iraitz MATEO

Bertsolaritza ez da txapelketa bakarrik, baina txapelketak dirdira egiten du eta asko ikusten da. Askotan esaten da txapelketak ez duela jasotzen plazaren nolakotasuna bere luze-zabalean eta ñabarduretan. Zaila da hori. Gipuzkoako finala dezente hurbildu da plazako argazkira. Ez da osotasunaren argazkia, baina argazki osoa da.

📷 Argazkiak: Jon URBE | FOKU

**I**llunbe txalotan leher-tuko da gaur arratsaldean. Leherketa horien maiztasunak eta intentsitateak kontatuko dute finala nolakoa den, zenbatetan lortu duten finalistek plaza gorantz ekartzeari, borobilarik ertzak jartzeari.

Saioaren lehen partean bertsolari bakoitzak hamasei bertso kantatu beharko ditu. Ariketei erreparatuta, izango du berezitasunik finalak: librean abiatuko dira bertsolariak. Lehen ariketan, binaka, launa bertso josi beharko dituzte, nahi duten neurri eta doinuak. Behin gaia entzunda bien artean erabaki beharko dute neurria eta doinua. Ea nola ateratzen den. Txapelketa

honetan zehar izan dira beste-lako berrikuntzak ariketetan, eta horrek sortu du lurrikararixoa. Berez da exigentea txapelketa, eta ariketetan berrikuntzak sartzeak areagotu egin dezake estuasuna.

Binaka zortziko txikian jarraituko du, banaka puntuka zortziko txikian, binaka hamarreko txikian eta ganbara. Ganbaran bi gai izango dira, lau bertsolarik gai bati kantatuko diote eta beste lauek beste bati. Horixe lehen parte, 16 bertso finalista bakoitzak.

Buruz burukora pasatuko dira bi puntuazio onena dutenak. Eta saioaren azken gailur horretan, beste hamaikana bertso josi beharko dituzte: launa bertso zortziko handian

binaka; launa bertso puntuka zortziko txikian binaka; eta ganbaran bakoitzak hiru bertso. Txapela janzteko, lana majo egin beharko da arratsalde osoan zehar.

Txapeldunari Arantzazu Loidik jantziko dio txapela. Aurten 50 urte bete dituen Almen bertso-eskolako kide izan zen Loidi neskatoa zela, plazan eta txapelketan ibili diren emakumeetan lehenengoetakoa. Eta bigarren sari bat ere izango da, hori Patxi Goikoleak emango du. Arantzazu Loidiren irakaslea izan zen Goikolea bertso eskolan, eta 25 urtez azpiko bertsolari onenaren saria emango du.

Aurtengo Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan indar berezia jarri da bertso eskolen bidea eta indarra goratzen, hain justu, Almenekoak mende erdia bete duelako. Finala bera bertso eskolen lan oparoaren isla izango da, finalista denak bertako umeak direlako. Recondorena da kasurik bereziena, duela bost urtetik hona zaletu delako bertsoarekin. Ez da umetatik bertso eskolan ibilia, baina orain Hernaniko bertso eskolan topatu du habia. Zortzi finalistetan bakoitza bide propiotik iritsi da bertsogintzara eta denek egingo dute topo gaur Illunbeko oholtzan, milaka bertsozaleren gozagarri.

Bertsozale Elkartetik jakinarazi dutenez, 15.30etan irekiko dira Illunbeko ateak. Haur txokoa ere izango da, saioa jokatzen ari diren bitartean hurrek bertan egoteko aukera izan dezaten. Doakoa izango da zerbitzua eta hezitzaileak izango dira bertan.

Hortik aurrera, bertsoak agindu dezala. Bertsogintzaren puntu eta jarraia.



**naiz:**  
**irratia**

ZUZENEAN ENTZUN

Finala zuzenean eta streaming bidez entzun ahal izango da Naiz Irratian, Aimar Sorazuk gidatuta eta Aitor Sarriegiren iritziekin.



## BEÑAT GAZTELUMENDI ARANDIA

«Buruz burukoan abestea gustatuko litzaidake, finala ahalik gehien luzatzea»

**2**015eko eta 2019ko Gipuzkoako txapelketa eta Euskal Herriko finalista azken hiru hizordutan. Bosgarren finala du aurtengoa. 20 urte zituela jokatu zuen lehena, 2007an. Txapeldunorde izan zen. Poltsikoetan bidea eta eskarmen-tua daramatza Beñat Gaztelumendik (Añorga, 1987).

**2007an finalista berria izate-tik, azken txapelduna eta be-teranoen taldekoa izatera. Al-datu egin zaizu tokia.**

Bai, erabat. 2007an sorpresaz eta 20 urterekin sartu nintzen. Orduan bazeuden bertsolari oso kontsaktuak finalean – Maia, Mendiluze, Irazu...–, Jon Martin ere bigarren eginda zegoen eta berriak ginen Unai Agirre, Aitor Sarriegi, Iker Zubeldia eta ni. Hori zen orduko argazkia, eta begira aurtengoa nola geratu den. Aldatu da nire kokapena, aldatu da finala bera ere, bertsokerak ere izugarri aldatu dira... Niri poz handia ematen dit bosgarren aldiz egoteak finalean eta bertso-gintzak izan duen garapen hori guztia oholtzatik bizitu ahal izateak. Egia esan erosoago nago orain finalean duela 17 urte nengoena baino.

**Orduan 'txahala' izan zinen. Aurten zortzikoari eustea egokituko zaizu?**

Ez dut horrelakorik sentitzen. 2011-2015 bueltan, justu gure aurreko belaunaldiak Gipuzkoako txapelketa utzi zue-nean, gure belaunaldiari ardu-

ra bat geratu zitzaion eta pixka bat eustea egokitu zitzaigun. Baina justu aurten finale-ra sartu diren bertsolari gehienak plazan bide bat egin dutenak dira, beren proposa-mena oso garbi dutenak, eta ez dut sentitzen pertsonalki bosgarrena dudalako finalari eutsi behar diodanik. Plazan bada sekulako ekarpena egi-ten ari den jendea, tiraka ari dena eta bertso-gintza iraultzen ari dena, eta alde horretatik bat gehiago sentitzen naiz. Eta oso eroso nago bat gehi-ago izanda.

**Txapelketan gozatzen ikusi zaitugu, irriño batekin kantuan.**

Egia esan oso momentu poli-tean nago. 2019ko Gipuzkoakoan ardura dezente neukala gogoratzen dut, eta ez nuen hainbeste gozatzen bertso-tan. Beti sentitzen nuen eman behar bat. Justu pandemiak behartu gintuen isilik egotera eta hilabete batzuetan plazan ez ibiltzera. Geroztik, senti-tzen dut bertso-laritzan pauso batzuk azkartu egin direla, jende batek beste ardura bat hartu duela eta nik aukera izan dudala lasaiago ibiltzeko eta beste leku batzuk bilatze-ko. Oraintxe txapelketan ez daukat 2019an neukan karga hori, ez dut ezer demostratu beharra sentitzen, eta egia esan oso ondo pasatzen dut, bai entrenatzen eta bai txapel-ke-tako une batzuetan, dezente gozatu dut. Saiatzen naiz ari-ke-ta bakoitzari gorputzaldi bat



den tonu diferenteeneko saioak egin eta bereziki bakar-kako on bat egitea gustatuko litzaidake.

**Bakarkakoa da gehien gusta-tzen zaizun ariketa?**

Beti bakarkakoa gustatu izan zait, eta pandemi-az geroztik Txapelketa Nagusian ofiziotan gehiago gozatu nuen bakarka baino. Lan berezi bat egin dut txapelketa honetan bakarkakoa lantzeko, doinu-ere ere uste dut asmatu dudala aukeraketan, eta une honetan bakarka ari naiz asko gozatzen. Beti saiatu izan naiz bakarkakoa dezente egituratzen eta kantuan hasi aurretik hezurdura asko pentsatzen. Justu txapelketa honetan kontrako ariketa egin dut, bukaerak pentsatu ditut. Baina doinuak berak asko laguntzen dit momentuan sortzen, doinuak berak eramaten nau eta jolas hori asko gustatzen zait, momentuan sortzea; ez jakitea oso ondo nora zoazen, baina sinestea doinuak berak eramango zaituela nahiko zenukeen tokietara. Bai, asko gozatzen ari naiz bakarka.

**Doinuak garrantzia dauka beraz.**

Bai. Nerea Ibarzabali entzun nion Bizkaikoan eta aurretik Maddi Ane Txoperenak ere erabili zuen. Gozatzen ari naiz doinuarekin. Azkenean, doinu bat etxe bat da; askotan gertatzen da doinu bat aukeratzea ustez oso ondo doakizuna, baina ulertzen ez dituzun arrazoiengatik pixka bat arrotza egitea, zure neurrikoa ez den jantzi bat bezala sentitzen duzu soinean. Nik sentitzen dut doinu hau nire neurri-neurri-koa dela eta gauza politikak ekartzen dizkidala sentazio eta ideia aldetik.

ekartzen, eta asko gozatzen dut horrekin. Bai, une ederean iritsiko naiz finalera.

**Txapela ez da inoiz helburua. Eta helburua bada ere, ez du-zue inoiz aitortzen. Zein izan-go da zure asmoa, gogoia?**

Hasteko, final on bat egin nahiko nuke. Txapelarena nahiko erridikulua geratzen da, galdetzean denok esaten baitugu ez dugula txapelik bilatzen. Nire kasuan, sentitzen dut nik onena emanda ere badagoela jende bat ni baino gehiago eman dezakeena. Alde horretatik, gustatuko litzaidake buruz burukoan abestea. Horrek esan nahiko luke Illunben kantatu daitezkeen bertsoaldi guztietan parte hartu dudala, eta hori gustatuko litzaidake, finala ahalik gehien luzatzea. Hortik aurrera, ariketa bakoitzak ematen duen aukera baliatu nahiko nuke, ahal

## ANER PERITZ MANTEROLA 'EUZKITZE'

«Minak eta zauriak non dauden ikusteko horri buruz hitz egin behar da»


**E**skolartekoan eta ha- maika sariketetan txapeldunaren gozoa probatuta, lehen aldiz parte hartu du Gipuzkoakoan. Finaleraino iritsi da, bertsoan fresko eta ideietan zorrotz. Dagoeneko helmugara iritsi denaren pozaz, patxadak laguntzen badio finala gozatzeko tokia topa dezake Aner Peritzek (Zarautz, 2002).

### Txapelketaren geltoki guztiak igaro dituzu.

Luzea izan da, hilabete asko. Udaberriko fasean beste bide batetik nindoan eta hor ere banituen nire beldurrak. Momentuan oso presente bizi nuen egin beharra eta bertan geratzeko arriskua. Lehen saioa ondo atera zen eta puntu asko batu nituen. Horrek lasaitu egin ninduen. Udaberri hartan nahiko eroso eta lasai aritu nintzen. Udazken honetan, final zortzirenetan eta laurdenetan, presioz estu eta tentsioarekin ibili naiz, pentsatuz aukera oso erreal bat zela kalean geratzeko, baina, aldi berean, ondo egingo banu pasako nintzen sinesmenarekin. Horrek, azkenean, mesede baino kalte egin dit. Justu azken saiora librean, lasaien eta kezka gutxiarekin joan nintzen, pasatzeko pretentsio gutxiarekin, ondo egitera, ondo pasatzera eta esan nahi nituen gauzak esatera.

### Esan nahi dituenak esatea. Horixe da bertsolariaren obsesioa. Zuk lortu duzu, ezta?

Uste dut baietz, eta hori bada pertsonalki inporta zaidan gauza bat, kezkatzen nauena eta egin nahi dudana. Ez zait interesatzen teknikoki perfektua den baina gero edukiz hutsala den bertso bat. Hori egiten badakigu gehienok gutxi



gorabehera. Baina interesatzen zait bertsoa diziplina artistiko bezala, mezuak emateko, transmititzeko eta edukietan sakontzeko tresna bezala. Eta txapelketa horretarako plaza zabalena, ikusiena edo publikoena da. Amorrua emango lidake nire burua hortik aparte ikusteko. Niretzat bada obsesiotxoak ekarpen diskurtsiboak egitea eta edukietan sakontzea, kokapenetan asmatzea eta gaiei interesatzen zaizkidan ikuspuntuak topatzea. Hori egin nahi izan dut eta gusturen hori lortu dudan ariketetan geratu naiz.

### Bertsolariari gustatzen zaio parean daukan bertsozalea aulkian pixka bat mugiaraztea, zer pentsatua ematea.

Bertsoak badauka funtzio sozial bat. Ardura bat ere badaukagu, leku pribilegiatu bat daukagu bertsoan ari garelako oholtza batean, mikrofono batetik, arreta handia sortzen dugu eta belarri asko ditugu adi. Hori ez da besterik gabe uzteko eta hutsaltasunean geratzeko, hori baliatu egin behar da. Honekin ez naiz esaten ari denbora guztian gai transzendentalez, sekulako pisuarekin eta sakonkeriatan aritu behar dugunik, baina uste dut bertsoa tresna bat dela politika egiteko, gauzak esateko eta mezuak emateko. Nik nire partetik horretan asko sinesten dut eta hori egitea interesatzen zait. Hori egiten saiatzen naiz. Batzuetan eragiten du jende baten edo publikoaren parte baten deserosotasuna. Asmoa bada astintzea edo kritika soziala egitea, deseroso sentitzea horren ondorio bat da. Baikorra iruditzen zait oinarri sozial batzuk mugitu ahal izatea, zantzak sortzea.

### Zure herriarekin pixka bat adiskidetzen ari al zara? Txapelketan bitan gutxienez hartu duzu ahotan, eta ez zein polita den esateko.

Ez dakit adiskidetzen ari ote naizen, baina behintzat esan ahal izan dut ez naizela hain adiskidetu eta egon beti eta hori askatze bat ere bada. Egia esanda pozik nago bakarkako horrekin, hori esan ahal izatearekin. Ez adiskidetu ere, ari naiz hori esaten. Hori erreal da eta pozgarria da airtortu ahal izatea, gure buruari ondo ez egoteko lizentzia ematea eta hori lasai esatea. Egia esan, txapelketa honetan

gauza batzuetan aurrera egin dut, zeinek esango zuen, eta pozik nago horrekin.

### Sendatzeko edo minak samurtzeko pauso bat izan daiteke hainbeste jenderen aurrean kontatzea, ezta?

Bai, publikoki eta norbere buruari. Ahoskatzea eta gauzei hitzak jartzea garrantzitsua dela uste dut. Minak eta zauriak non dauden ikusteko horri buruz hitz egin behar da. Horretarako balio izan dit honen denak. Uste dut ari naizela bide bat egiten saiatzen beste harreman bat edukitzeko nire herriarekin eta nire jatorriarekin. Baina ez dut uste nire bizipen pertsonala denik, uste dut nahiko sentsazio partekatuak direla, eta horregatik dauka horrelako indarra.

### Illunbe plaza handia da. Ez du ematen normalean plazak beldurtzen zaituenik.

Asko beldurtzen nau. Jende askok esaten dit hori, ez duela ematen, agian disimulatzen ikasi dut. Saiatzen naiz itxura ematen, indartsu itxura ematen eta nire buruari sinestazten, bestela plazak jan egiten zaitu. Orain arte gertatu bazait, Illunben are gehiago.

### Tira, azken geltokia da, ez duzu inora iritsi beharrik, finalista berria zara... Dena alde daukazula ematen du.

Bai, uste dut baietz eta horrek asko lasaitzen nau. Ez naiz egongo txapeldun kinieletan, ez dut egon nahi, eta uste dut beste lasaitasun batetik eta beste leku batetik noala. Hainbeste presio eta espektatiba gabe, plazak izango duen dimentsio, edertasun eta handitasun horretan niretik uzteko eta esan nahi ditudanak esateko baliatu nahi dut Illunbe.



## ALAI MARTIN ETXEBESTE

### «Gauzak lurrera ekartzeak sortzen laguntzen dit, nire egunerokoa ere lurrekoa delako»

**A**laia Martin Etxebeste (Oiartzun, 1987) 2011n sailkatu zen lehen aldiz finalera eta orduz geroztik beti egon da Illunbeko oholtzan. Jolaserako gogoz igoko da fokupera aurten.

#### **Martxan zegoen tren batera igo zinen txapelketan.**

Bertigo pixka bat banuen sartzeko, eta baita ilusio handia ere. Plazan banenbilen, baina badakigu txapelketa beste kode bat izaten dela. Gipuzkoakoa zehazki duela bost urtetik berri gabe kode bat zen nire gorputzean.

Eibarko aste lasai eta gogoz pasa nuen, eta gorputzaldi onarekin iritsi nintzen, pozik; nahikoa gozatu nuen kantuan. Nahiz eta beti geratzen zaigun bertso edo posizio batzuei ukituren bat emateko nahia. Zarautzera begira ere saiatu nintzen jabetzen pasabide bat baino gehiago dela finalurreko bat, finalarekin egiten dugu denok amets, plaza handi horrekin, baina finalerdi bat ere izugarritzako plaza da, eta batzuetan ahaztu egiten zaigu hori. Ariketa oso bihurriak ziren, batetik besterako jauziak oso bortitzak ziren eta kontzentrazio maila handia eskatzen zuen saioak, horretan zentratu nintzen. Eta taldearekin asko gozatu nuen. Elkarriketak eraikitzen gustura sentitu nintzen, entzuten ari nintzelako, eta konturatu naiz niretzat oraintxe bertsoan oso garrantzitsua den gauza bat entzutea dela.

#### **Etengabe zehaztasuna sumatu dugu zure bertsoetan: Crocsak, Twingoa, hanketako babak...**

Niretzat zehaztasuna garrantzitsua da, zehaztasunak eta

zorroztasunak ematen dute antzekoak direla, baina ez dira gauza bera. Gustatzen zait pertsonaia edota egoera marraztea, niri laguntzen dit sortzen, eta beste sortzaileengan asko estimatzen dudana gauza bat da, ikustea, bisualizatzea edo lurrera ekartzea gauzak. Eta niretzat gauzak lurrera ekartzeko modu bat da zehaztasu-



na, eta hori interesatzen zait, agian nire egunerokoa ere oso lurrekoa delako, oso momentukoa, oso egunerokoa eta oinezkoa. Egunerokoaren arrunckerian ez, baina soiltasun eta sinpletasuna bai, eta aldi berean gauza ederra da hori ere. Denok konpartitzen ditugun kode, gertaera, usain edota kolore asko daude hor, zehatzean eta egunerokoan.

#### **Zein gorputzaldirekin igo nahiko zenuke oholtzara?**

Zaila da asmatzen gero egunak nola harrapatuko zaituen, askotan sorpresa handienak egunean bertan etortzen dira, beldur eta ilusio handienak momentuan bertan etortzen zaizkizu. Nahiko nukeena garbi dut: zer plaza puska den kontziente izan, zer luxua den, zenbat jende lan egiten duen saio hori aurrera ateratzeko, zenbat jende hartzen duen bere bizitzako arratsalde bat horretarako.

Zortea izan dugu han egoteko berriz, eta hori gozatzeko kontzientzia eta kontzentrazioa nahi ditut. Eta gero, jolaserako askatasuna ematea nire buruari, nahi dut bertso barruan espermentatu eta entzun, ondokoa entzun eta ea zer eraikitzen den. Finaletan beti izaten da, baina uste dut elkarrizketarako oso talde ona dela, unibertso, konbertsazio, pertsonaia berriak sortzeko oso aukera polita izango dugu. Puntu guztiak aprobetxatu nahi ditut, hitzak aukeratu senetik, eta askatasunetik ere bai, ahal bada.

#### **Zer iradokitzen dizu zortziko-teak?**

Poz-pozik nago tokatu den taldearekin, prestaketa jende ezberdinarekin egin dut, tartean, adibidez, Oihana Arana eta

Maidar Arregirekin; bi bertsolari puska dira, eta Maidarren kasuan, adibidez, hor geratu izanak pena eman dit, izan zitekeelako beste zortziko bat eta beste zortziko bat ere bikaina izango litzatekeelako.

Bestetik, ni lehenengo aldiz 2011n sailkatu nintzen finalera eta emakume bakarria nintzen final hartan, ordutik hona nola aldatu diren gauzak... 2015ean Oihana Iguaran pasazen eta 2019an erdi eta erdi izan ginen. Gerora iritsi gara eszenatoki honetara, niretzat izugarritzako aldaketa da lehenengo final hartatik datorkigun honetarako jauzi hori, eta ilusio horrekin ere bizi dut.

#### **Bertsogintzaren ekosisteman zein garrantzi dute bertso eskolek?**

Oinarrizkoak dira. Nire kasuan abiapuntua, 12 urterekin hasi nintzen bertsoan bertso eskola bati esker, amu hori jarri zigutelako, Arkaitz Goikoetxeak esaterako eramaten zigulako saioetara. Sare bat izan genuen, Oiartzunen bazegoen bertso aste bat eta bertso mugimendu bat, eta horri esker zaletu ginen, Oiartzungo bertso eskola handi horri esker, eta bertso eskola txiki askotariko horiei esker.

Ezinbesteko balioa dute. Niretzat, behintzat, plaza bezain garrantzitsua izan da bertso eskola. Plazak asko ematen dit, uste dut plaza oro ikasten dudala zerbait nire buruaz, inguruaz, bertsoaz edo testuinguruaz. Baina uste dut bertso eskola garapen espazio bat dela, eusteko espazio bat ere bai, norbere argi-itzal horietan, indartzeko espazio bat eta ezinbestekoak, bertsogintzak aurrerapausoak eman ditzan eta mantendu dadin dagoen espazio horretan.

## ENERITZ ARTETXE EIZAGIRRE

«Hankak oholtzan mantendu eta bertsoan egitearekin konformatzen naiz»

**E**neritz Artetxe (Azkoitia, 1990), tarte batez Txapelketa eta bertso eskola ere utzi ostean, Txapelketara itzuli da eta finaleraino iritsi da.

### Udaberrian hasi zenuen lehen saioa eta azken-azken saioraino iritsi zara.

Sorpresaz hartu dut, ez nuen uste txapelketa hain luzea izango zenik, udaberri hasita udazkenera arte nahiko luze egiten da, ba finaleraino zer esanik ez; eta horri gehituz gero aurreko hilabeteetako prestakuntza, denbora luze egiten da, baina pozik nago. Neke pixka bat antzematen da, baina egindako lanaz gozatu ederra hartuta nago, hobetzeko gauzekin, baina pozik.

### Aurreko prestaketak aipatu dituzu, nola landu duzu?

Urte pila bat neramatzan bertso eskola fundamentuz zapaldu gabe, eta duela urte eta erdi edo hasi ginen bertso eskolan, astero bildu eta ohiko ariketak egiten; elkartu, bertsoan egin eta komentatu egiten genuen. Txapelketa aurrera joan den heinean eta ariketak aldatzen joan diren heinean, entrenatzeko ariketak aldatu ditugu, baina prestakuntza modu ohi-koan egin dugu, ezer berezirik egin gabe.

### Txapelketa izan da berriro ere bertso eskolan fundamentuz hasteko motiboa?

Txapelketa nire kasuan aitzakia bat gehiago izan da. Duela

bost urte txapelketako saio denetan egotea tokatu zitzaigun, baina oholtza behean, eta inbidia handi-handia pasatu nuen. Bukatutakoan, banekien aurtengo Txapelketan parte hartuko nuela. Aitzakia bat izan da txapelketa hainbeste gustatzen zaigun bertso-gintzari eusteko, txapelketarik ez balego seguruenik ez nintzatekeelako berriro ere asteroko dinamika horretan sartuko.

### Zuk baino hobeki inork ez du ezagutuko txapelketaren beheko aldea...

Txapelketa hain ondo ezagutzeak ez dakit alde txarrak edo onak dituen, nik, aurtengoa ikusita, esango nuke ondo etorri zaidala txapelketak antolakuntza aldetik zer lan daukan ezagutzea. Balorazioak egiterakoan, edota bestela ere kexatzeko joera dugulako: gai txarrak izan direla, epaileek lana ez dutela ondo egiten... Nik uste dut lan hori guztia ezagutzeak eman didala aukera pixka bat erlatibizatzeke eta balioan jartzeko lan hori bera ere. Eta batez ere, guk kantatu ahal izateko han goizeko zortzietatik lanean zenbat jende dagoen jakiteak balio izan dit.

### Gipuzkoako bertso-gintza nola sumatzen duzu?

Txapelketan bertan ikusi da belaunaldi berrien parte hartzea nolakoa izan den, eta nik beti foku handiena bertso eskoletan egiten den lanean jartzen dut. Belaunaldi berriak eta diskurtso berriak egotea



zein garrantzitsua den sumatzen dut, hori ez litzateke posible izango bertso eskoletan egiten den lanik gabe. Eta uste dut azken urteetan eman den bilakaera (bai hezkuntza arautuan eta baita bertso eskoletan ere, metodologia aldetik, irakasleen formakuntzan...) nabari dela Eskolartekotik hasi eta Txapelketaraino.

### Baduzu ariketa kuttunik?

Norbere bertsokerarekin bat etortzen da askotan gehien gustatzen zaiguna, ni neurri txikiaren oso zalea izan naiz beti. Uste dut bertsoan garrantzitsuena dela besteak entzun, erantzun eta elkarrizketa osatzea, eta orduan, bai hamarreko txikiko eta baita zortziko txikiko ariketan ere izugarri gozatu dut, Altzotik hasi eta Zarautzeraino.

### Garrantzitsua da entzutea?

Horrenbeste urtetan bertso eskolara joan gabe egon eta gero, egun batean konturatu nintzen ondoan nuen bertso-kidearen bertso bat bera ere ez

nuela entzun ofizioa bukatuta-koan. Hor egin nuen klik bat, eta esan nion nire buruari: “Bertsotan ahaztea da hau, ondokoa entzun gabe kantari hastea”. Arreta berezia jarri dut hor, batzuetan obsesionatzeraino. Baina nik uste dut esaten dugunean plazako kutsua eman behar zaiola txapelketari, horretaz ari garela; biren arteko lana egiten saiatzen ez bagara, nahiko zaila izaten da luzitzea.

### Illunberako asmo zehatzik ba al duzu? Zarauzko azken agurrean sustoa aipatu zenuen...

Sustoak astebete iraun zidan finaleko aukerarekin, baina ja %100 finalean kokatuta, ez dut asmo berezirik. Nik uste dut txapelketa osoan egin dadana egiteko gai baldin banaiz Illunben, besterik ezin dudala eskatu. Ea plaza ez zaigun handi geratzen eta hankak oholtzan mantentzea lortzen dugun, han egoten asmatu eta guretik pixka bat uzten dugun, bertsoan egitearekin konformatzen naiz.



**O**ihana Iguaran Barandiaran (Villabona-Amasa, 1991) gogotsu dago Illunbeko oholtzara igotzeko, hirugarren finala izango du aurtengoa eta «egoeraren jabe» sentitu nahi du.

#### **Azken saioa irabazita sailkatu zara finalera.**

Orain arteko bidea polita izan da, gogoz egon naiz noiz kantatuko, bertso eskolako kideak ni baino lehen hasi ziren txapelketako saioetan eta pixka bat zain egon naiz, sartzeko gogoz. Irunen oso gustura aritu nintzen, itxaronaldia pixka bat luze egin zitzaidan. Arrasatera tentsio horrekin joan nintzen, gauza batzuetan asmatu genuen, beste batzuetan ez horrenbeste, eta orain, gauzak hobeto egiteko gogoz nago.

#### **Finalerdietako ariketak zorrotzak ziren?**

Eraiki beharra eskatzen zuten ariketa berriek. Gainera, ez zen ofizio bat bakarrik, bat baino gehiago ziren berezitasun hori zutenak, zehaztea bertsolariengan uzten zutenak, eta hor erabaki onak eta txarrak denok hartzen ditugu. Nik ez nuen sufrimendutik bizi izan, baina saio aurretik bazenekien hor bazela gako bat. Adibidez, zortziko txikian launa bertso izan genituen, eta hori asko eskertzen den gauza bat da; ematen du aukera garatzeko eta ñabardura ezberdinak aterahal izateko. Eta finala ere neurri libreko ariketarekin hasiko da, eta nik, behintzat, eskertzen dut.

#### **Plazako jardunera hurbiltzen diren ariketak izatea esker-tzen duzu?**

Bai, baina batez ere iraupenagatik nion. Pentsatzen dut txapelketak bertso kopuru mugatua behar duela neurtu ahal izateko; plazan guk malgutasun hori izaten dugu, zenbat bertso, neurria eta doinua. Finalan ere erabakitzeko aukera emango zaigu, eta nahiz eta hurrengoak erabakita egoteak baldintzatzen duen, nire ustez interesgarria da, margen bat ematen duelako gaiarekiko erabaki zehatzagoak hartu ahal izateko.

**Hausnarketari eta aktualitateari bide eman ohi diozu.**

Batetik, bizi garen munduan joera batzuk eta kezka batzuk baditugu, bai guk baita publikoko jende askok ere. Mikrofono bat aurrean daukagun momentutik bada modu bat eragiteko edo aukera bat behintzat, eta nik zentzu horretan ardura bat sentitzen dut. Ez dut uste nire hausnarketa maila gorago dagoenik entzule askorena baino, alde-rantziz. Baina guk badugu mikrofono bat, badugu bide batzuk ateratzeko aukera, askotan ez da gai batzuk nora eramane, baizik eta bistara ekartze hutsa, eta nik beste bertsolariei hori eskertzen diet asko, eta ni ere ahalegintzen naiz ekarpen bat egiten.

#### **Doinu berria plazaratu zenuen Arrasaten, baita 2022ko Txapelketa Nagusian ere, gustuko duzu doinuen jolas hori?**

Txapelketa garaian eta bakar-kakoetan nahiko molde irekiak izaten dira, baditu ezagurri batzuk istorio bat garatzea eskatzen dizutenak, eta uste dut hor bertsolari asko eta asko ibiltzen garela gure neurriko soinekoaren bila, gure estiloari edo momentu horretan daukagun joerari ondoen zein doinu emango

zaion pentsatzen. Bakarkako ariketa lantzeko nire modua batzuetan bada emozionatzen nauen doinu bat hartu eta horri buelta bat ematea.

**2019ko finaleko zure agurrak zion: «...Zabiltzateni bertso eskolatan, segi bultzaka, lehengo modetan, hari tira ta zabaltzen...». Zein funtzio betetzen dute bertsoaren ekosisteman zure ustez?**



## **OIHANA IGUARAN BARANDIARAN**

«Askotan ez da gai batzuk nora eramaten ditugun, bistara ekartze hutsa baizik»

Nik uste dut bertso eskolei, eta kasu honetan sorrerako horiei, gauza asko zor dizkiegula; batetik, jardun honen iraupena, zabalkundea eta esparru zein jende berriarengana iritsi ahal izatea. Horrek dakar jende desberdinaren ahotsak bertso eskolatar eta plazara ekartzea, oraindik bide luzea dugu egiteko, oraindik jende asko falta da halere.

Bertso eskolek guztion bizitzetan duten erreferentzialtasuna izugarria iruditzen zait, bertsoetik urrunago zaudenean ere badira bueltatzeko espazio, ardatz bihurtzen direnak, hori izugarria da. Euskararen bueltan zedarrituak dira, hizkuntzaren lanketarekin batera zehar lerroan hausnarketa eta gogoeta sustatzen du, jolasaren bueltan betiere, baina nik uste badela jardun bat gogotara bultzatzen gaituena. Niretzat sekulakoa da pentsatzea hainbeste gaztetxo hizkuntza landu ahala ari direla jartzen agian sekula pentsatu ez dituzten roletan, urrun sentitu dituzten errealitate batzuetan. Nik hain gaztetatik begiak zabaldu izana bertsolaritzari zor diot.

#### **Zein gorputzaldirekin edo asmorekin iritsi nahiko zenuke larunbateko saiora?**

Izugarrizko gogoia dut, izugarritzko saioa egin nahi dut. Inoiz ez dut egin final bat “uau ederra” esateko bezalakoa, eta gogo handia dut hori egiteko, baita finala kontzientziaz bizi izateko ere. Lehenengoa pixka bat ilusiotik eta ezin sinetsitiki bizi nuen, duela bost urte ez nintzen iritsi nire baldintza onenetan pertsonalki, eta aurtentzen, nire buruari zor diot kontziente eta egoeraren jabe sentitzea, eta izugarritzko gogoia dut saio oso ona egiteko.


**L**ehen aldiz izango da Gipuzkoako final batean. Finalista bezala lehen aldia eta Illunben lehen aldia. 2019an hasi zen lagunartean bertsoan, eta bere lehen txapelketan finaleraino iristea lortu du, bere burua eta ingurukoak harrituz une askotan. Hizkuntza maite du, hizkuntzarekin jolasteak irrika sortzen dio, eta orain bertsoa obsesio bihurtu zaio Andoni Rekondori (Hernani, 1999).

### 2019. urtean hasi zinen bertsoan, justu aurreko Gipuzkoakoan.

Lotsa pixka bat ematen dit esateak, baina 2019ko txapelketan ez nuen saio bakar bat jarraitu, ezta finala ere. Ez dakit 2019an bertsozalea ere ba ote nintzen, ezetz esango nuke. Nik duela gutxira arte ez neukan bertsozalea erreferentziarik. Gaur egun hori nabaritzen dut, besteekin konparatuz gero erreferentzia gutxi ditudala. 2019ko azaroan hasi nintzen Hernaniko Kontrakantxa gaztetxeko bertso eskolan, lagunartean; bertsoan egin, koplak batzuk bota...

### Finalista asko eskolarteketatik ikusi ditugu oholtzan hazten. Zuk, berriz, beste bide bat egin duzu.

Egia esan, harrituta nago ikusita nola iritsi naizen finalera. Lehendik ere harrituta nengoen txapelketan izan ditudan emaitzekin. Nire bilakaera berezia da. Hizkuntzarekin irrika berezi bat izan dut beti, idaztea gustatzen zait, kazetaria naiz... hizkuntzarekin lotura hori beti izan dut, baina lotura hori ez da bertsoan loratu 18-20 urte izan ditudan arte. Eskolan bertsozalea eman genuen, baina ez dut sentitzen garai hartan interes berezirik sortu zidanik



## ANDONI REKONDO IZAGIRRE

«Ez dakit 2019an bertsozalea ere ba ote nintzen, ezetz esango nuke»

bertsoak. Nahiko erraz egiten nuela bai, baina irrika ez zidan piztu beranduagora arte.

### 2019ko azaroan lagunartean hasi eta 2020ko urtarrilaren 19an Hernaniko Tabernetako Txapelketa irabazi zenuen.

Ez nekien txapelketa hori egiten zenik ere. Gaztetxean bertsoan hasi eta berehala animatu ninduten txapelketa horretan parte hartzera. Inoiz ez zitzaidan burutik pasatu ere egin jendaurrean bertsoan egingo nuenik. Tira, atera nintzen lagunarteko txapelketa horretara eta irabazi egin nuen. Nire jendaurreko lehen plaza izan zen. Giro berezia

izaten da, parranda giroko plaza bat da. Hasieran urduri nengoen, tentsioarekin, erridikulua egingo ote nuen... baina gero lasaitu eta egia esan gozatu egin nuen.

### Baina hortik Gipuzkoako Txapelketara badago koska.

Bai. Tabernetako txapelketa eta gero pandemia etorri zen. Itxialdian pixka bat aritu ginen, Whatsapp bitartez eta... Pandemiatik bueltan berriz bueltatu ginen Kontrakantxara, baina ez zuen denbora asko iraun. Hernaniko bertso eskolako kideak adinkideak eta lagunak ditut; Iker Ormazabal, Andoni Mujika... Behin Ormazabali aipatu nion noizbait zerbait antolatzen bazuten nirekin kontatzeko. 2022ko udan, abuztuan, telefonoz deitu zidan Ormazabalek. Lizardi sariketarik deitu ziotela, bertsolari batek huts egin eta norbait behar zutela. Berak ezin zuen eta ea animatuko ote nintzen. Asteartez deitu zidan, kanpoan nengoen kuadrillakoekin, eta Lizardiko saioa ostiral horretan bertan zen. Nik ez nekien Lizardi sariketa zer zen ere. Orain lotsa pixka bat ematen dit hori esateak, baina horrela zen. Finalera pasatzea lortu nuen. Finala prestatzeko ardurak puntua sartu zitzaidan, eta aste horretan bertan Hernaniko bertso eskolarekin entrenatzen hasi nintzen, 2022ko abuztu amaieran. Eta ordutik talde horrekin berarekin jarraitzen dut.

### Hartara, zure lehen plaza handiak Gipuzkoako Txapelketakoak izan dira.

Bai, bai, oso handiak, gainera. Pixkanaka igotzen joan naiz, Urretxukoa izan zen nire lehen plaza handia eta Arrasateko finalerdian 1.300 lagunengana iristen nintzen. Eta orain Illunbe, agian nire bizitzako

plaza handiena. Pixkanaka deskubritzen ari naiz.

### Nola sentitu zara plaza horietan?

Egia esan, behin bertsoan hasten naizenean, niri behintzat ez dit eragiten aurrean dagoen jende kopuruak. Hasi aurretik agian bada urduritasuna, pasillo madarikatu horrek ere mugitzen dizu zerbait barruan, baina behin bertsoan hasten zarenean, nahiko antzekoa da 100 izatea Urretxun edo 1.300 Arrasaten, nire kasuan behintzat. Egia da ondo egitea tokatzen zaizunean, erantzuna izugarria dela eta bueltan datorrenak inpresioa egiten duela, barruan lurrikaraxoa sortzen duela.

### Ez dakit zure burua irudikatu ote duzun Illunben.

Egia esan ez, baina irudikatu beharko dut. Ahal den lasaien joaten saiatuko naiz, hango handitasuna lurrera ekartzen, nire hitzek nonbait lur har dezaten.

### Zure bertsokeran hori gustatzen zaizu, zure hitzek publikoan lur hartzea.

Bai, niri gustatzen zait saioan bertan dagoen horri kantatzea, ekarpen bat egitea, ulertuko duen zerbait ekartzea. Formulazio eta ideia aldetik buelta bat ematea gustatzen zait, toki horretan eta unean bertan pertinentzia daukan eta iristeko erraza den mezu bat zabaltzeko.

### Zer diote ingurukoek?

Etxean oraindik flipatzen ari dira. Izan dudana bilakaerarekin harrituta daude, pozik ere bai, eta asko laguntzen didate. Ilusioa sumatzen dut etxean, kuadrillan, herrian... Inguruan poza sortzeak sekulako ilusioa egiten dit.



## NEREA ELUSTONDO

### «Gizartean elkarri entzuten ikastea falta zaigula uste dut, oholtzan horretan saiatzen naiz»

**N**erea Elustondo Plazaolak (Legazpi, 1981) bigarren finala jokatu du larunbatean Illunben. Jendea «bertsoak entzutera» joatea espero du, eta berak, ahal den neurrian, dibertitzera joan nahi du.

#### **Udazkeneko fasera jada txapelketa martxan zegoela iritsi zinen, zein sentsazio izan zenituen?**

Oiartzungo saioan behintzat trenean igota nindoan, baina Tolosara bertigo handiarekin joan nintzen, azken-azken kanporaketa tokatu zitzaidan eta batzuk jada trenera igota hilabete eta gehiago zeramaten. Alde batetik, oso ondo etorri zitzaidan lasai egon nintzelako irailan eta urrian. Baina hasterako entzun nituen jendearen komentarioak, saio dexente, eta jendea ondo ari zen bertsotan, beraz, bertigo handiarekin joan nintzen lehen saiora. Eta bigarren saiorako kontrakoa, segidan etorri zitzaidan, baina hori da txapelketa, tokatzen denean tokatzen da.

#### **Finala ariketa berezi batekin abiatuko duzue. Plazaren tankera ematen dio horrek?**

Ez zait iruditzen, plazaren tankera eman behar balitz, utzi denak librean eta erabakiko dugu zer egin. Baina ariketa bakarra da, eta gero jada lotuta daude zortziko txikia, hamarrek txikia... Ez dakit zein neurritan egingo dugun, niri zentzuak zortziko handian egitea eskatzen dit, inon idatzita ez dagoen arren zortziko handirako joera dagoelako. Iruditzen zait oso arriskutsua dela ja berez ez dakit zenbat mila entzuleren aurrean kantatu beharrak sortzen duen

tentsioari gehitu behar izatea neurriaren erabakia gure esku egotea. Gainera, ez da saio bukaera aldera jada motorra berotuta daukazunean egiten duzun ariketa bat, hasiera-hasieran egin behar duzu, eta hotz-hotzean ez dakit buruak ataka horretan esperimentatzeko gogorik izango duen.

#### **Ofizioetan entzun eta erantzuten ikusi zaitugu, batzuetan txapelketan faltan sumatzen dugun zerbait.**

Nik uste dut ofizioak definitzior edukitu behar duela elkarriketatik, ez dut esan nahi

denak elkarriketa itxia izan behar duenik, ez eta bukaerari bukaerarekin erantzun behar zaionik ere. Baina iruditzen zait elkarlanak egon behar duela, eta elkarlana izateko, batak besteari entzutea behintzat ezinbestekoa da, erantzutea beti ez da posible izaten.

Iruditzen zait batzuetan ofizio deitutako bi bakarkako elkartzen ditugula, eta zilegi iruditzen zait, baina nik entzule bezala eskertzen dut elkarriketak entzutea. Eguneroko bizitzan nik uste dut monologo dexente edukitzen ditugula oholtzatik kanpo ere. Zer esaten den eta zer esaten ez den horretan sartu gabe ere, mezu bezala, gizartean oro har elkarri entzuten ikastea falta zaigula iruditzen zait, niri ere bai e, baina oholtzan saiatzen naiz hori praktikan jartzen; ez dut beti lortzen, eta beti ez da posible. Batzuetan estimatzen da besteari ez entzunarena egi-

tea, bat amildegian behera badao besteak jarraitzea ez da oso hautu inteligentea izaten, batzuetan egiten dugun arren.

#### **Zer iradokitzen dizu finaleko zortzikoteak?**

Adinez ni izango naiz zaharrena, hasteko. Iruditzen zait kanturako talde polita dela; pape-raren gainean esango nuke zortzi pertsona diferente xamar garela, Gipuzkoako final batean inoiz egon den emakume kopuru handiena ere bada. Kanpotik iruditzen zait saio polita ateratzeko osagaiak badaudela, gero barrutik ikusi egin beharko dugu larunbatak nola harrapatzen gaituen, baina ikusten dut nahasten zaizkigula gaztetasuna, freskura, esperientzia... teoriar osagai guztiak ditu finalak; praktikan, ahal dena egingo dugu denok.

#### **Baduzu asmo zehatzik finale-rako?**

Nik bertsotan egiteko gogoia daukat, fokua ez dut postue-tan jarri nahi, etortzen baldin badira ondo, eta bestela ere bai. Hainbeste jenderen aurrean bertsotan egiteko jarrera mantendu nahiko nuke, funbulista konplexu horretan ibili: bukatuko duzun edo ez ez jakitearen emozioan, bukatzean eta asmatzean ederra izaten den emozio horrekin.

Orain dela bost urte bertigoarekin joan nintzen horrenbeste jenderen aurrera, eta orain disfrutatzea gustatuko litzaidake. Ez dakit posible den horrelako dimentsioetan disfrutatzea, baina bertsotan eginez momentu batzuetan gozatzeta eta publikoarengana iristea, hori da nire helbururik handiena. Denok egin nahi dugu saio ona, baina ahal dena egingo dugu, eta ahal den hori ea txukun xamarra den.



## ANE LABAKA MAYOZ

# «Aurreko finalean, helburua egotea zen; aurtengoan, egitea»

**O** iartzungo finalerdian poltsikoratu zuen finalerako txartela Ane Labakak (Lasarte-Oria, 1992), finalerdietako bigarren puntuazio onenarekin. Bere inguruan sumatu izan dituen zalantzak isiltzeko bertsotan egin du, intentzioz. Gorputzaldi horretatik begiratzen dio finalari.

### **Oiartzungo finalerdian ia ziurtatu egin zenuen finalerako txartela. Itxaronaldia lasai samarra izan da, ezta?**

Niretzat lehenengo aldia izan da horrela; lehen finalerdian kantatu eta ia-ia segurutzat izan dut finalean egongo nintzela, eta hurrengo egunak eta asteak hortik bizitu ditut. Lehen aldia izan da eta, egia esan, luxu bat da. Azkeneko saioan urduritasuna izan nuen, baina gehiago finaleko zortzikotea zein izango zen jakiteko.

### **Egia da finaleko argazkiak gauza asko kontatzen dituela.**

Bai. Zati batean bai errepresentatzen du gaur egun bertsolaritza dena edo behintzat nik bertsolaritzan bizi dudana. Gazteak indartsu zetozela esaten zen, eta nire kezketako bat bazen gero, faseek aurrera egin ahala, eskarmentu gehiago daukaten bertsolariek egitea aurrera. Beldurra nuen gazteen indarra hauspotzen ari ote ginen eta ea gero iritsiko ote ziren finalera. Iritsi dira eta oso pozik nago horregatik. Eta finalean emakumeok gehiengo garelako nabarmendu da eta horrekin ere oso pozik nago. Baina ez gaitezen argazki horrekin bakarrik geratu. Txapelketan atzera eginda, badago zer esan eta zer aztertua genero ikuspegitik. Oraindik badaude inertziak, eta gerta-



tzen dira zalantzan jarri behar-ko genituzkeen gauza batzuk.

### **Gazteak eta eskarmentudunak aipatu dituzu. Zuk bigarren finala eta dagoeneko eskarmentudunen zakuan.**

Bitxia da nola aldatzen den hori txapelketa batetik bestera. Egia da bost urte pasatu direla tartean. Baina aurrekoan finalista berria izan nintzen eta, bat-batean, hurrengo txapelketan dagoeneko ez naiz finalista berria eta, gainera, eskarmentudun bezala irakurtzen naute. Zorionez urte hauetan plaza dezente egin ditut, eta baita beste zenbait proiektu ere. Eskarmentua hortik datorrela uste dut.

### **Ez dakit gutxiago sufritu duzun edo gehiago gozatu, baina txapelketa honetan beste toki batean sumatu zaitugu.**

Bada, Azkoitiko saioan, final laurdenetan, asko sufritu nuen. Oiartzunera oso borrokara joan nintzen, arantza hori kendu nahian. Eztabaida ezina zen saio bat egin nahi

nuen. Atzera begiratuta, beste txapelketetan eta askotan izan dut sentipena aitortza jaso dudala, baina aitortza partziala. Beti izan da 'ondo, baina'. Horregatik 'bainarik' gabeko saio bat egin nahi nuen. Pozik nago horrekin, aitortza orokorrago bat iritsi zaidalako eta nire bertsokera aldatu behar izan gabe iritsi zaidalako. Nik sinesten dudana eta egin nahi dudana horri eutsi diot eta hori eginda jaso dut aitortza hori. Niretzat horregatik izan da Oiartzun mugarririk bat, lehen aldiz sentitu dudalako horrelako zerbaite.

### **Nola definituko zenuke zure bertsokera?**

Askotan esan izan didate hautu estetiko bat egiten dudala, erri- men lanketarekin eta. Nik horri gehituko nioke edukia ere eman nahi diodala. Niretzat errimak lantzea eta beste errimategi bat ekartzen saiatzea, nire lupa hor jartzea, ez da bakarrik edergarri bat. Ez dut egiten bakarrik estetikoki gustatzen zaidalako. Iruditzen zait tradizioak eman dizkigula modu eta errima jakin batzuk bertsotan egiteko, eta badira esaldi eta esamolde egin batzuk bertsolari askok errepikatzen ditugunak. Ni bai saiatzen naiz hortik alde egiten, eta errimen lanketak laguntzen dit horretan. Askotan betiko errimekin eta betiko hitzekin betikoa esateko arriskua dago. Askotan beste errima edo hitz batzuen bila aritzeak ahalbidetzen dit gauzak modu berri batean esaten eta horretan saiatzen ari naiz.

### **Nola gordetzen duzu Illunbe-ko oroitzapena gorputzean?**

Gauza oso-oso handi bat bezala gogoratzen dut, baita tentsio handia ere. Saio hasiera erabat

borratuta daukat, gainera pasatu zitzaidan olatu bat bezala. Bukaera gogoratzen dut. Baina nahaste moduko bat gogoratzen dut. Eta hurrengo egunetik hasita, aste osoa pasatu nuen ohetik ezin altxa. Neke handi-handiarekin. Ez nengoen gaixo, baina ezin nuen altxatu.

### **Aurten segur aski ezingo duzu astea ohean pasatu finala eta gero, etxeko txikiak ez dizu utziko. Orain ama zara.**

Ez hurrengo astea eta ez aurrekoa. Azkoitiko saioaren aurretik eta Oiartzungoaren aurretik etxeko txikia gaixotu egin zen, uste dut berak ere somatizatu duela gure kaos eta eromen hau. Horri buruz ere hitz egin beharra dago, zer-nolako ahalegina eskatzen duen gu txapelketan egoteko eta ahalik eta ondoen egoteko haur txiki batekin egin behar den guztiak. Askotan esaten dugu txapelketa garaian dena bere tokian egotea nahi dugula, ezerk ez dezala koloka edo dardara egin. Eta ume txiki batekin hau bizitzea justu kontrakoa da. Erditze ostea oso-oso gogorra egin zitzaidan, erditze oste bete-betean nengoen txapelketan izena eman behar izan genuenean, eta niretzat lehen aldiz erabaki bat izan zen benetan txapelketan parte hartu edo ez. Orain pozik nago hartutako erabakiarekin, baina egia da une horretan ez nintzela ari baterere gozatzen plazetan. Sentsazioa neukan desagertzeko beldur batetik ari nintzela saioak egiten, 'hemen nago' esaten nolabait, baina ez neukan gorputzaldia jendaurreko eta bertsotarako. Pozik nago bai plazan eta bai txapelketan asko gozatzen ari naizelako eta lortu dudalako berriz bertsoaren magia horrekin konektatzea.



{ koaderno } Iker BARANDIARAN

# Paperik baduzu?

**K**alean gu baino gazteagoak dira ia guztiak, lan esparruan ere gero eta gehiago, bestelako pentsaera daukate, harritzen gaituzte haien janzkerek eta ohiturek, ez ditugu ulertzen haien lehentasunak... Baina non ikasitakoak dira? Non irakurri dute hori guztia?

Orain dela lauzpabost urte hemen, orriotan, idatzituen jada ez naizela gaztea. Nire aitortzak –hausnartutakoak, ez pentsa!– izan zituen erreazio desberdinak: izan ziren adinean nigandik gertu badaude ere, asaldatuta, beraiek, ni ez bezala, gazteak direla irmo aldarrikatu zidaten lagun batzuk; eta baita “bazen ordua!” hasperen alpertua egin zidan bakanen bat ere. Baina bakana izan zen nirekin bat egin zuena, gure belaunaldiak bizitza modu eta estilo idiliko, aisialdiko eta agortu ezinekoa iltzatuta daukalako erabat. Gazte izaten jarraitu nahi dugu, aisialdiari bete-betea zukua atera nahi diogu, orain dela 20-30 urte egiten genituen plan berak egin nahian... eta ez, hori guztia ez da posible, edo ez behintzat lehen bezala eta tamaina berean. Bestelako ardurak ditugu, bestelako mugak, gorputza ez da berdina eta gu ere ez gara berberak. Gainera, guk beste erreferente batzuk ditugu eta gauza askotan gaurko jorrek alderatuta erabat desberdin pentsatzen dugu.

Prozesu antzekoa bizi izan dut –eta badakit ez naizela bakarra– arropen, bereziki kamiseten, tailleekin. Ez da pozgarria izaten *medium* delakoetatik *large*-ra halabeharrez igaro behar izatea. Beste galera bat? Ez, ba, garaietara egokitzeko beharra eta gizarteak irakatsitako beti-lirain-gazte izate nahi horren desmitifikazio argia.

Eta izan ginena galdu nahi ez izatearen premia edo urgentzia ere lotuta dago erabat, esaterako, antzinako musika taldeekin gertatzen denarekin. Etengabe dabilta aspaldiko musika taldeak berpizten eta agertokietara itzultzen, ia taula gainak bereganatzen. Izan ere, ikusle ugari batzen dituzte, haien sasoikoak batez ere,

jakina, eta itzulera horiek gure belaunaldikoei balio diete/digute ispilu faltsu gisa kaleak (edo agertokiak) berreskuratzeko.

Nik gero eta gehiagotan esaten dut pertsona nagusia naizela, besteak beste, lan arloan edo beste esparru batzuetan jende askoz gazteagoarekin egoten naizenean, haien eta gure artean dagoen distantzia erraldoiaz jabetuta. Harriduraz begiratzen naute txantxetan ari naizelakoan, baina nik badakit horrela dela eta, zergatik ez!, izandakoaz, bizitakoaz eta orain naizenaz harro ere banago.

Tarteka tabernatan egiten dut eguerdiko mokadua eta, inguruan hainbat aukera desberdin baditut ere, bazkaltera bakarrik joanez gero “Diario Vasco” hegemonikoa ez den beste egunkaririk eskuragarri duten establezi-

Eta izan ginena galdu nahi ez izatearen premia edo urgentzia ere lotuta dago erabat, esaterako, antzinako musika taldeekin gertatzen denarekin. Etengabe dabilta berpiztu eta agertokira itzultzen

menduen alde egiten dut. Gero eta gutxiago dira prentsa erosten duten ostalaritza establezimenduak eta are gutxiago horren aukera zabala dutenak, eta niretzat garrantzitsua da. Sakelakotik hedabideak irakurri ditzaket, baina ez da gauza bera, niretzat ez dauka parekorik. Lankideei azaldu izan diedanean harrituta gelditu dira papererako debozio horrekin, eta aurrekoan batzuek aipatu zidaten ez dutela bizitzan inoiz egunkaririk erosi.

Kioskoan aspaldi aipatu zidaten, tamalez, hegemonikoa den egunkaria erosten duten pertsonak hil ahala utziko diotela papera saltzeari.

Nik behintzat, ahal den bitartean, hegemonikoa ez den prentsa paperean irakurtzen jarraituko dut, argi izanda nolabait korrontearen kontra egiten dugula. •



**A**bestiak dioen moduan, "bertan ditugu Gabonak". Olentzero eta Mari Domingi jada prest izango dira menditik jaitsi eta etxez etxe opariak banatzeko. Urte sasoi berezia da, batez ere hurrek urduritasun eta ezinegon handiz bizi-tzen dutena. Baina hurrek bakarrik ez, gurasoek ere estres handiarekin bizi dituzte sarritan egun seinalatuok. Horregatik, Hezten aisialdi hezitzaile euskaltzalean lan egiten duen elkarteari gomendio batzuk eskatu dizkiogu egun hauetako bizipenak hobeto kudeatu eta oparien aukeraketan laguntzeko.

Maite Asensiok, Hezten elkarteko koordinatzaile orokorra, hartu gaitu Donostian duten egoitzan. Eta lehen aholkua horixe izan da, hartu lasai egun hauek, ez pilatu dagokiona baino urduritasun

## GABONETAKO OPARIAK

### Olentzero eta Mari Domingiri gutuna idazteko kontuan hartu beharrekoak

📁 HEZKUNTZA / Asier Aiestaran

Etxe gehienetan, batez ere haurrak tartean direnean, urteroko ohitura izaten da Olentzero eta Mari Domingiri gutuna idaztea. Ekintza xumea dela pentsa liteke, azaleko eginbeharra, baina zerrenda hori ongi prestatzeak eta etor litezkeen oparien aukeraketak dirudiena baina garrantzi handiagoa dute. Hona hemen gako batzuk.

handiagoa zakuan, gero ondorioak ez direlako nahi ditugunak izaten. «Gabonetako ospakizunen inguruan gero eta lehenago hasten gara hitz egiten. Eta horrek hurrei sekulako espektatibak sorrarazten dizkie, gero betetzeko oso zailak direnak. Ikastetxeek ere badute horretan erantzukizuna, baina gure esku dagoe-

nean, etxean, alegia, egin daitekeena da prestaketa horiek ahalik eta gehien atzeratzen saiatzea. Apaingarriak goizegi ez jartzea eta Gabonei garrantzia kentzen saiatzea, batez ere, horri garrantzia emateak sortzen duen urduritasuna eta ezinegona gero Olentzeroren egunean lehertzen delako etxe askotan».

Behin arnasa hartuta, sar gaitezen ba Olentzero eta Mari Domingiren paperean. Zer oparitu daiteke? Zer ez? Ba al daude jostailu egokiak eta desegokiak? Kokatu ahal izateko, opari aukeraketaren kontuan izan beharreko irizpide nagusiak, edo nagusietako batzuk, aipatu dizkigu Maitek. «Garrantzitsua da egiten duten zerrenda edo gutun horretan hurrek benetan zer nahi duten pentsatzea, askotan inguruak bultzatuta eskatzen dituztelako gauzak, beren behar edo gaitasunekin benetako loturarik ez dutenak. 'Zer nahi dut?' galderari erantzutea», aipatu du lehenik.

«'Zer behar dut?' galderari ere erantzun behar lioke zerrenda horrek. Konturatu behar dutelako behar horiek asetzeko garai ona izan daitekeela», jarraitu du Asensiok. «Eta aurrez aipatutako 'nahi dut' horretan lehentasunak jartzea. Gaur egun ohituta gaude hurrek izugarriko zerrendak egitera, baina zerrenda horretan aukeraketa bat egin beharko lukete».

Eta kontuan hartu beharreko beste bi faktore ere aipatu dizkigu: «Oparitzen dugun horrek guk beraiekin landu nahi dugun heziketari erantzun beharko lioke: hezkidetza, indarkeria, pantailak... Kezkatzen gaituzten gauza horiek kontuan hartu eta hausnarketa bat eginda. Eta uste dut garrantzitsua dela haurraren gaitasunak kontuan hartzea eta ez ekartzea zerbait frustratuko duena. Sei urteko haur bati hamar urteko batentzat pentsatuta dagoen puzzle bat oparitzea, adibidez. Gomendatutako adina orientazio modura erabili ohi da, baina guk haurraren gaitasuna izan behar dugu

Maite Asensio, Hezten elkarteko koordinatzaile orokorra, Donostiako egoitzan.  
Maialen ANDRES | FOKU



kontuan, eta ez hainbeste kaxan jartzen duen adina».

Jolas edo jostailu batzuk desegokiak direla nahiko argi izan dezakegu –«argi dago indarkeriarekin lotuta dauden jolas edo jostailuek ez dutela nire ustez inoiz balio egokirik ekarriko, pistolak eta antzekoak», iritzi dio Maite Asensioiok-. Baina beste batzuen kasuan zalantza gehiago egon daitezke, genero ikuspegitik, adibidez. «Egia da panpinak eta halakoak askotan balio negatiboekin lotu izan ditugula, baina kasu horretan jostailua bera baino uste dut garrantzitsuagoa izaten dela haurrak jolasterakoan hartzen duen edo betetzen duen rola. Adibidez, haurra ari bada emakumezko panpina batekin beti etxeko lanak egiten, hor bai aztertu beharko genuke rol horiek nondik hartzen dituen. Berez, haurren irudimena oso zabala da eta jostailu berdinarekin jolas desberdin pila bat egin daitezke, batez ere jolas simbolikoak ari garenean. Guraso edo hezitzaile bezala begiratu beharko genukeena da, jostailua egokia edo desegokia den baino, haurrek jolasean zer rol betetzen dituzten eta rol horiek nondik datozen».

#### KALITATEA, EZ KANTITATEA

Maitek mahai gainean beste gako garrantzitsu bat ere jarri digu: ongi pentsatu behar da zer oparitu, baina baita zenbat oparitu ere. Gure jendarte zahartu honetan ohikoa da haur bakoitzak heldu asko izatea inguruan opariak egin nahian, eta askotan ez da erraza izaten hori kudeatzea.

«Nik gomendatuko nuke dena pertsona, guraso edo tutore batek kudeatzea. Haurrarekin gutun edo zerrenda hori osatzen dugunean, lehenik



haiekin landu behar da. Bost jostailu nahi baditu, adibidez, benetan zein nahi duen aukeratzeko eskatuko genioke. Haurrak ulertu behar duelako dena ez duela jasoko, eskatzen den guztia ez dela iristen. Haurrak hautaketa bat egin beharko du eta gurasoak beste bat. Eta gero, kontuan izan behar da zer behar dugun. Hori ere garrantzitsua da, egunerokotasunean beharrak sortzen direla ulertzeko. Adibidez: udan haurrak udalekuetara joan

Mahai jolasak aukera ona dira familian jolastu ahal izateko, baina hizkuntza edo adin jakin baterako egokia izatea kontuan hartzeko faktorea da.

Gari GARAIALDE | FOKU

nahi du lagunekin, eta horretarako lo-zaku bat behar du. Ez da jostailu bat, behar duen zerbait da, baina ilusiotik eskatu daiteke», jarri du lehen oinarria.

«Behin zerrenda hori edukita, familian kudeatu behar du. Nork oparitzen dion zer haurrari, eta kontrolatu, opari bat izan dadila, ez pila bat. Bestela erabateko deskontrola izaten da, eta haurrak bosgarren oparia irekitzen duenerako ez daki zer jasotzen ari den

ere. Gehiegikeria bat bilakatzeko da eta haurrak jada ez du gozatzen. Eta inguruan opariak egin nahi dizkien jende asko daukagunean, beste aholku bat da opari batzuk gordetzea eta hurrengo asteetan ateratzen joatea. ‘Gogoratzen zara Olentzerok hau ere ekarri zizula?’, eta urtarilaren erdian opari horietakoren bat atera, jolas edo jostailu horri behar duen tartea eskainiz», jarraitu du Maitek.

«Askotan opari bat irekitzen dutenean ez dakite zer den, nola jolasten den... informazio asko izaten da egun bakarrean, eta horrek denbora bat eskatzen du. Adituek diote lau edo bost oparitik gora gehiegikeria dela eta haurrek ezin dutela hori dena barneratu. Baina ulertzen dut askotan diskurtsoa erraza dela eta gero errealitatean zaila dela opariei muga hori jartzea. Osaba-izebak, aitona-amonak... inguru bat daukagu hor eta askotan ez da erraza hori dena kudeatzea», onartzen du Hezten elkarteko koordinatzaileak.

Hori bai, argi izan behar dugu askotan kalitatea kantitatea baino garrantzitsuagoa izaten dela, eta haurrek sarritan gehiago baloratuko dutela nagusi horiek eurekin jolasteko tarte bat hartzea opari jakin bat edo beste egitea baino. «Familia jolasak, karta jolasak... Konpartitzen ditugun momentu horiek beste modu batera gogoratuko ditugu. Denbora eskaintzea eta denbora hori oparitzea oso garrantzitsua da. Baina badago joera hori, haurrek bakarrik jolas dezaten nahi izatearena. Ulergarria da: denok oso okupatuta gaude, etxetik kanpo mila gauza egiten ditugu, oso nekatuta iristen gara etxera... Baina askotan ez da dedikazio



handia behar. Etxean denok eduki behar genituzke oso azkarrak diren jolas mota horiek, bost edo hamar minutuan partida bat jokatzeko. Eta denboratxo hori eskaintze hutsak balio handia du», gogoratu du Maitek.

#### **EUSKARA ETA PANTAILAK**

Euskaraz bizi nahi dugunon kasuan, hizkuntza ere kontuan hartzeko irizpidea da. «Inguruaren arabera izaten da, baina askotan haur edo gaztetxoek jolasa edo dibertsioa ez dute euskaraz identifikatzen. Jolasean sartzen direnean hizkuntz aldaketa bat gertatzen da askotan. Kontuan izan behar da jolas gehienetan hizkuntza norberak hautatzen duela, eta zein hizkuntzatan jolastu oso aske geratzen denean ezin da ziur jakin euskara garatzen ari direnik. Horregatik, garrantzitsua da, idatzizko edukiak dituzten jolasen kasuan, horiek euskaraz izatea. Horrela ez bada, nahi-

gabe ere jolasak beste hizkuntza horretan aritzera bultzatuko zaitu. Adibidez, haurrak asko jolasten dira karta bat kopetan jarri eta galderak eginenez karta horretan ikusten dena asmatzera. Hori gaztelaniaz etortzen da, eta nahiz eta haur euskaldunek jolastu, nahi gabe ere gaztelaniaz jolastuko dute. Edo Iparraldean frantsez. Askotan ez diogu garrantzirik ematen, baina saiatu beharko genuke gure ingurua euskalduna baldin bada jolasean ere euskaraz egiten», aurreratu du Maitek.

Baina gehitu duenez, euskarekiko ardura oso zabaldua dagoen beste kezka batekin nahasten da sarritan, pantailen erabilerarekin, alegia. «Askotan gehiegi pentsatu gabe oparitzen dizkiegu gaztetxoei pantailadun gailuak, izan tabletak, izan mugikorrak, zoriez gero eta beranduago. Eta oso ohikoa da gailu horietan bideo motzak eta halakoak ikustea. Eduki hori ia dena gaz-

telaniaz edo frantsesez jasotzen dute. Bideo eta mezu horiek gazteen hizkuntza gaitasunean eragina dute. Ez euskararen bakarrik, baina euskara egoera zaugarrian egonda are gehiago. Gai oso konplikatuak dira, eta ez zaio behar adina arreta jartzen, nire iritziz».

Gaia atera duenez, eta familia askotan gatazka iturri bilakatu denez, pantailen inguruko gogoeta eskatu diogu Maiteri. «Pantailak gure errealitatearen parte dira eta ezin ditugu ekidin. Uste dut hortik abiatu behar dugula. Guraso bezala

**«‘Zer behar dut?’ galderari ere erantzun behar lioke zerrenda horrek. Konturatu behar dutelako behar horiek asetzeko garai ona izan daitekeela», dio Maite Asensiok**

**«Oparitzen dugun horrek guk beraiekin landu nahi dugun heziketari erantzun beharko lioke: hezkidetzak, indarkeria, pantailak..», gehitu du, hausnarketarako tartea hartzeko gomendatuz**

formazio bat, heziketa bat, lan-keta bat behar dugu pantailen inguruan ere. Ikastetxeetan, aisialdian... hor ere heziketa bat ematea garrantzitsua iruditzen zaigu», aipatu du abiapuntu moduan. Eta zuri edo beltz diktomia horretatik ihes egiteko, elkartean izandako esperientzia bat azaldu digu.

«Duela urte batzuk udaleku bat egin genuen pantailetan oinarrituz. Gaztetxoak euskal ‘influencer’ bilakatzea zen erronka, eta horretarako prozesu bat aurrera eramatea. Gure benetako helburua zen gaztetxo horiek hilabetez euskaraz hitz egiten jartzea, eta horretarako pantailak aukera handia ematen ziguten. Sorkuntza prozesu bat egin behar zuten: bideo bat sortzeko gidoi bat idatzi behar duzu, kasu honetan euskaraz, jendearekin hitz egin behar duzu grabaketa antolatzeko, jantziak adosteko, lekuak erabakitzeke... Beraien arteko harremanak sortzen dituzu eta euskara arlo erakargarri batean txertatzen duzu. Hau Barakaldon zen eta beraiek ez zeuden udaleku horietan euskararengatik, gazte horietako askok euskara ez zuten dibertsioarekin lotuko. Baina lortu genuen haien arreta erakartzea eta behin hori lortuta euskara sartzen joatea. Kontuan izan behar da askotan ingurutik jasotzen duten mezuak ere ez duela laguntzen: beraien euskara ez dela zuzena, edo ez dela behar bezalako. Udaleku hauetan lortu genuen beraiek euskal sortzaile bezala ikustea beren burua», nabarmendu du.

«Honekin esan nahi dudana da pantailak ere badituztela gauza onak, eta erabili ditzakegula helburu garrantzitsuetarako. Ekiditeak eta existituko ez balira bezala jokatzek ez



du zentzurik, azkenean denon eguneroko bizitzan hor daudelako. Eskolan ere ordenagailua gero eta lehenago sartzen zaie, gaztetxoek gurasoak etengabe pantailekin ikusten dituzte, kalean jendea berdin... Pantailak hemen daude, baina 'hemen daude' horretan hartu behar ditugu neurriak horren kaltegarriak ez izateko. Kaltegarriak izan daitezkeelako. Haur eta gaztetxoek pantaila horietan zer ikusten duten ez dakigun unetik kaltegarriak dira. Zer bideo mota ikusten dituzten eta zer mezu jasotzen dituzten. Gu etxean heziketa lan bat egiten ari gara haur eta nerabe horiekin, eta gero agian horren aurka doazen mezuak jasotzen ari dira beste bide batetik. Guk, adibidez, ez ditugu pistolak oparitu eta indarkeriaren inguruan diskurtso bat daukagu, eta gero agian ez dakigu zer bideo ikusten ari diren horren inguruan. Edo beste edozein arlotan».

Eta hausnarketa orokorrarekin batera, erabilera mugak zehazten ausartzea ere eskertu diogu Maiteri: «Pantailak noiz? Ba haur txikiei ez, hori oso argi. Kezka handia sortzen dit, adibidez, jatetxe batera joaten naizenean eta ikusten ditudanean bi edo hiru urteko haurrak mugikorrari begira jaten, helduek lasai bazkaldu dezaten. Ez gara konturatzen horrek zer kalte eragin dezakeen, ohitura bat sortzen delako eta ohitura horrek gero behar bat sortuko duelako. Adin on bat? 16 urte aipatzen da, mugikorraren kasuan, batez ere. Tabletak? Nik hor ere 16 urte gomendatuko nuke, baina lehenago sartzen bada etxean kontrol batekin izan dadila. Aplikazio pila bat daude kontrol horretarako. Adibidez, zerbait deskargatu nahi dugunean baimen bat es-

katzea eta baimen hori gurasoek bakarrik edukitzea. Eta hori komunikaziorako baliatzea. Kontrol bat ezartzeak ez du esan nahi ahaztu gaitzkeenik. Baizik eta hitz egiteko erabili behar litzatekeela: 'Zer nahi duzu ikusi?', 'Zergatik?' Eta baiezkoa edo ezezkoa argudiatzen saiatu: 'Jolas hau ez dizut

utziko etxe honetan indarkeria ez dugulako nahi eta jolas horri indarkeria zantzuak ikusi dizkiodalako'. Edo 'jolas hau bai zure adinarentzat egokia iruditzen zaidalako'. Haiek ulertzea ez dela sudur puntan jarri zaigun zerbait, zergati bat dagoela erabaki horien atzean. Eta denbora muga batekin. Izan daite-

ke astean zehar batere ez eta asteburuetan, denok lasaiago gaudenean, egun bakoitzean ordu erdi edo ordubete, gehiago ez. Adinaren arabera denbora hori luzatzen joan daiteke. Nik pertsonalki ezezagunekin online jolastea ez nuke baimenduko, hor beste arrisku batzuei atea irekitzen diegulako».



**Panpinek fama txarra izan ohi dute, baina Maite Asensiok aipatzen duenez jostailua bera baino garrantzitsuagoa da jolasean haurrek hartzen duten rola.**  
Maialen ANDRES - Juan Carlos RUIZ  
| FOKU





Unai  
GAZTELUMENDI

# iRRITZIA:





## Usoaren logika

Koldo SAGASTI

**P**asa den asteburuan bi ospakizun sakrosantu lotzen dituen zubiaz gozatu genuen, Konstituzioa eta Sortze Garbiaren Eguna. Lehenak aita asko izan omen zituen, baina birjintasunaren gorazarreko datak bakarra, Aita Santu batek asmatu baitzuen, Pio IX.k, 1854. urtean, bi mila urteko ibilbidean kasik herenegun. Nork edo nork Aita Santuaren hutsezintasunaren dogma ezarri zuen lehenik, gerora xisteratik aterako zuenari bermea emateko, orbanik gabeko sorkundearena. Aitortu behar dizuet beti kezkatu nauela ernalketaren eguna abenduaren 8an izateak eta jaiotzarena 25ean. Atera kontuak, hamazazpi eguneko haurdunaldia. Horregatik, ezinego-

nak bultzatuta, aurten internetera jotut susmatzen nuena egiaztatzeko, alegia, hamazazpi egun direla, hain zuzen ere, uso arruntaren ernaldiaren denbora. Pio kabroi hark egutegiko edozein egun aukera zezakeen bere asmakizunari data jartzeko, baina ez, usoaren ernaldia hartu zuen erreferentziatzat ospakizuna kalkulatzeko. Benetan, jende hau ez da serioa. Hain sinesgarritasun gutxi daukate, non oraindik ulertu ezinik nabilen nola den posible XXI. mendean oraindik ere erakunde publikoak mendean dituen botere faktikoa izatea.

Gasteizen polemika piztu da aste honetan gotzaingoak ukatu egin diolako zinema ekoiztetxe bati katedral zaharreko esparrua erabiltzeko baimena. Egunotan

“Sacamantecas” filma grabatzen ari da hiriburuan, eta zenbait eszena tenplu barruan grabatzeko eskabidea egin zuten zinemagileek, baina apezpikutzak ez die utzi. Gatazka horren haritik jakin dugu erakunde publikoek 50 milioi euroko dirulaguntza eman diotela elizari eraikinaren zaharberritze lanetarako, eta finantzaketa publikoa izanik, lekuaren erabilerak ere halakoxea beharko lukeela. Baina ez, hori logikaren arabera litzateke, eta ezin zaio logika eskatu hegaztien eta pertsonen arteko harreman interespezistak dogma bilakatu dituztenei. Eskatu dakieke, akaso, dauzkaten ondare higiezinengatik dagozkien zergak ordaintzea, hasiera ona litzateke. Baina ez, logika ezin zaie eskatu. •

## Lider bat behar dugula dio...

Asier AIESTARAN

**A**skotan pentsatu izan dut hizkuntzak eta ondoek badutela antzekotasun bat. Izan ere, udazkenean perretxikoak kolpetik agertzen diren bezala azaleratzen dira zenbait hitz garai jakinetan. Gogoratzen dut, duela urte batzuk, ezagutzen ez nuen “erkin” hitza entzuten nola hasi nintzen egun batetik bestera behin eta berriz. Erreferentziazko idazle, kazetari edo bertsolariren batek erabiliko zuen seguru asko, besteei gustatu, eta azkar zabaldu zen erabilera. Bertsolariak aipatu ditut, uste dudalako Bertsolari Txapelketaren bat jokoan zenean iritsi zela eztanda hura, eta bertsolari bat baino gehiago entzun nituen “erkin” ointzat

hartuta kantuan. Perretxikoak bezala, hitz horietako asko agertu bezain azkar desagertzen dira gero.

Politikan ere, aholkulari eta kontsultoreen garaiotan, badira bat-batean modan jartzen diren kontzeptuak. Ez dira hitz berriak, baina susmagarria da etengabe errepikatzen hasten direnean. Sektore jakin batzuetan “askatasuna” edo “etorkizuna” izan dira bi adibide nabarmen, eta azkenaldian “lidergoa” da belarriak minberatzen hasi zaidana. Ez bera bakarrik, baina batez ere Imanol Pradales lehendakaria entzun dut azkenaldian behin eta berriz “lidergoa” aipatzen leku, arlo eta testuinguru ezin desberdinagoetan.

Ez naiz hemen hasiko lidergoez tratatu soziologiko bat idazten, ez dudalako horretarako behar den jakintzarik, baina iruditzen zait benetako lidergoak sortu egiten direla, irabazi nahiago baduzue, eta ez hainbeste eskatu, edo aldarrikatu. Agian “Berri Txarrak belau-naldikoa” naizelako izango da, baina “lidergoa” entzuten dudak bakoitzean lekunberritarren estrofatxo hura etortzen zait burura, doinu eta guzti: «Lider bat behar dugula dio...»

Hala ere, pentsatzen jarrita, abesti horrek ia 20 urte baldin baditu, liderrei buruzko burutapenak ez dira atzo goizeko kontuak. Egia izango da artistak beti aurretik doazela. •

# BOLEIBOLEAN EUSKARAZ

## Oarso Boleibol Taldeak kirol horretako euskarazko hiztegia argitaratu du

**E**uskarak aurrera egiteko beharrezkoak izango dira nazio mailako urrats sendoak eta erabaki estrategikoak, baina baita gure egunerokoan egindako keinu txikiak ere. Hain zuzen ere, keinu horietako baten istorioa da hemen kontatu nahi duguna: Errenteriako Oarso Boleibol Taldeak boleiboleko kontzeptuen euskarazko hiztegi bat argitaratu berri du.

Egilea Lucia Jimenez Mayoral gazte errenteriarra da, eta hiztegia idaztearena bere ekimen pertsonala izan zen. Berak ez du boleibolean jokatzeko baina bere ahizpak bai, eta aita taldeko zuzendaritzako kidea da. «Beste hizkuntza

**KIROLA** / Asier AIESTARAN

«Boleibola bultzatu nahi dugu, eta hori euskaraz egin». Nerea Liceagaren hitzak dira, iaz sortu zen Oarso Boleibol Taldeko presidentearenak. Helburu horretan lagungarri izango den «opari» bat jaso zuten duela gutxi, Lucia Jimenez gazte errenteriarrek boleiboleko euskarazko hiztegi bat lantzen ari zela kontatu zienean.

batzuetan eta beste kirol batzuetan ikusi nituen antzeko gauzak, eta aitari esan nion ongi legokeela boleiboleko euskarazko hiztegi bat egitea. Pixkanaka egiten hasi nintzen, forma ematen, eta azkenean ateratu da. Ondo egon da», azaldu digu apal.

Lucia Fisika ikasketak burutzen ari da Bilbon, eta ez omen du filologia edo hizkuntzalari-tzarekiko interes berezirik. Lan honek gehiago erantzuten dio taldearen egunerokoan ikusitako hutsune edo behar bati, eta sorkuntzarako joera bati. «Gauzak sortzea, editatzea...

Oarso Boleibol Taldeko jokalaria, entrenamendu baten aurretik, argitaratu berri den hiztegitxoa erakusten.  
Maialen ANDRES | FOKU

dibulgazioa gustatzen zait», dio proiektuak sortu duen interesarekin apur bat harrিতuta.

"Boleiboleko gida laburra" izenburupean, Luciak kirol horretan erabiltzen diren kontzeptu nagusiak euskaratu ditu, baina bide batez horren ezaguna ez den modalitate baten oinarriko arauak ere jaso ditu. Hamar orriko liburuxka txiki baten forma hartu du lanak, eskura izateko aukera eta erabilgarritasuna emanez.

«Zailena informazioa euskaraz aurkitzea izan da. Hitz gehienak oso teknikoak dira eta boleibola Euskal Herrian ez da gehiegi landu. Ez daude hitz konkretuak postu batzuk edo teknika jakin batzuk izendatzeko. Zailena termino horiek zuzen izendatzea izan da. Ahal dudana egin dut», esan digu Luciak.

Orain, hitz eta termino horiek egunerokoan erabiltzen diren edo ez ikusi beharko da. «Kostako da entrenamenduetan edo partidetan hitz horiek erabiltzeko ohitura hartzea, baina ongi dago nonbait hitz horiek idatzita uztea eta oinarri bat behintzat izatea».

Argi dagoena da klubak esku zabalik jaso zuela ideia: «Luciak euskarazko boleibol hiztegi bat sortzea proposatu zigunean, ez genuen zalantzarik izan. Proiektu honek, gure kirolean euskararen erabilera normalizatzeaz gain, Oarso Boleibol Taldeak gure hizkuntza eta kulturarekin duen konpromisoa indartu nahi du», adierazi zuen Nerea Liceaga Oarso Boleibol Taldeko presidentearak hiztegia aurkezteko antolatutako ekitaldian.

«Boleibola gure herrian kirol gutxitua izanagatik ere, interesgarria iruditzen zaigu tresna hau eskaintzea jokalaria eta entrenatzaileei, termino





zuzenak erabiltzera ohitu daitezzen. Lan honetan Luciarekin batera Jose Vicente Holgado Kirol Zuzendaria, Itziar Yarzabal entrenatzailea eta Maria Jimenez jokalaria aritu dira, eta euskara ikuspegitik zuzenketak Errenteriako Udaleko Hizkuntza Politika Saileko Arantxa Zabalak egin ditu», gaineratu zuen.

«Gure jardunean askotan errepikatzen dugu euskaraz egin behar dugula, jokalariei eta entrenatzaileei eskatzen diegu ahal duten heinean euskaraz egiteko, eta horretarako, tresna hau oso interesgarria iruditu zitzaigun. Boleibola batez ere erdaraz iritsi zaigu orain artean, eta hau bada modu bat horri buelta emateko».

Azkenik, hiztegia inguruko beste klubekin partekatuko dutela jakinarazi zuen Liceagak, eta sare sozialen bitartez eta taldearen webgunearen bitartez ere zabalduko dutela. «Hiztegi hau Errenteria Gipuzkoako emakumeen boleibolaren erreferente gisa sendotzeko beste tresna bat da», aldarrikatu zuen.

#### ARRAKASTAREN ONDORIOAK

Tantta Oarso Boleibol Taldea 2023ko maiatzean sortu zuten kirol hori praktikatzeko zuten herriko nesken gurasoen talde batek. «Gure alabak herritik kanpo jokatzen hasi ziren, inguruko beste talde batzuetan. Gurasook beti aurrera eta atzera ibili behar genuen. Beste herri batzuetara joaten ginen, eta horietako batzuetan jada lekurik gabe geratzen ari zirela ikusita, proposatu ziguten ea zergatik ez genuen guk Errenterian talde bat sortzen. Eta horixe pentsatu genuen: 'Zergatik ez?' Erabaki genuen Errenterian talde bat sortzea. Guraso batzuk bildu ginen, eta



Nerea Liceaga, Oarso Boleibol Taldeko presidentea (ezkerrean), eta Lucia Jimenez, hiztegiaren egilea (eskuinean).  
Maiialen ANDRES | FOKU

hemen gaude», azaldu digu taldearen sorreraz Nerea Liceaga presidenteak.

Eta oraindik urte eta erdiko ibilbidea bakarrik izan arren, deigarria da boleibolak Errenterian izan duen arrakasta. «Bi talderekin hasi ginen, eta orain zazpi izatera iritsi gara, 90 neskatik gora. Eta hemen ez daude Errenteriako jokalaria bakarrik, Oarsoalde osoko jendea daukagu. Lezo, Pasaia, Oiarzun, Donostiatik ere etorri dira batzuk... Gehienak Errente-

riakoak dira, baina ingurutik ere etortzen da jendea».

Pozteko kopuruak dira, baina antolakuntza aldetik zailtasun handiak sortzen dituzte. «Jendea kanpoan utzi behar izan dugu. Instalazio aldetik ez daukagu leku askorik entrenatzeko, entrenatzaileak ere ez, eta talde mistoak egiteari ere uko egin behar izan diogu. Koldo Mitxelena institutuan entrenatzen dugu batez ere, eta Beraungo frontoian ere bai batzuetan, nahiz

eta han ez daukagun leku askorik. Jokatu frontoian egiten dugu, eta noizbehinka Orereta Ikastolan ere bai, nahiz eta aurrean oraindik ez dugun han jokatu. Leku falta daukagu, ea udaletxeak horretan apur bat laguntzen digun».

Horregatik, Liceagak kazetariaren arreta baliatu nahi izan zuen deialdia egiteko. «Boleibola bultzatu nahi dugu, eta hori euskaraz egin nahi dugu. Entrenatzaileak aurkitzea, adibidez, zaila da erdaraz, eta euskaraz are zailagoa. Horregatik, deialdi bat egiteko baliatu nahi nuke aukera hau: norbaitek esku bat luzatu nahi badu, hemen atea irekita aurkituko ditu. Gainera, orain laguntzak daude entrenatzaile ikastaroak egiteko, eta horrek ere laguntzen du. Eskakizun handiak daude, baina laguntzak ere bai. Federazioek apur bat laguntzen dute, beraz, etortzeko gonbita luzatu nahi dugu».

**Lucia Jimenez Fisika ikasketak burutzen ari da Bilbon, eta ez omen du filologiarekiko interes berezirik. Lan honek gehiago erantzuten dio taldearen egunerokoan ikusitako behar bati**

**«Gure jardunean askotan errepikatzen dugu euskaraz egin behar dugula, eta horretarako, tresna hau oso interesgarria iruditu zitzaigun», dio Nerea Liceaga klubeko presidenteak**



## Arantza IRASTORZA GOÑI

UPV/EHUko Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria

# Forentse informatikoak datuen uxarrean

**K**onputagailuen azterketa forentse» konputagailutatik ebidentziak identifikatu eta gordetzen dituen teknologia eremua da. Zibersegurtasunak gailuen eta datuen babesarekin zerikusia duen bezala, teknologia honek datuak berreskuratzearekin du zerikusia. Zibersegurtasunak eraso zibernetikoak ez gertatzeko edo beren ondorioak txikitzeko neurriak jartzen ditu, eta azterketa forentseak, berriz, segurtasuneko gorabehera gertatu ondoren, hori aztertu eta arakutzen dihardu.

Konputagailuan burutzen diren ekintza ia guztiek azterna utziko dute fitxategien sisteman: fitxategiaren aldaketa, fitxategia ezabatzea, disko eremua handitzea, memoriatik diskora idaztea, gertaeren lortzea aldatzea. “Forentse informatikoa”-ren lana froga edo ebidentzia digitalak bildu, analizatu eta aurkeztea da. Horretarako, oso teknika eta software tresna espezializatuak erabili beharko ditu, metodologia eta prozedura legalak zorrotz aplikatuz eta zaintza-kateak mantenduz, ebidentziak fidagarritzat eta baliozkotzat hartuak izan daitezten. Esaterako, konputagailu batean jasotako fitxategi sistemaren analisia egin beharko du, bere egitura sakonean arakatu eta ulertu beharko du, kontuan hartuz sistema eragile bakoitzak bere fitxategi sistema duela (NTFS, EXT, etab.). Arakatzean, batzuetan datuak sakabanatuta egon daitezke eta dena berrantolatu behar izatea gerta daiteke, edo hondatutako fitxategi sistema konpondu behar izatea.

**Arakatzeko lan horretan beste teknika garrantzitsu bat da «metadatuaren analisia».** “Metadatuak”, motzean esanda, datuen inguruko datuak dira, eta definizioa pixka bat osatuta, datuak antolatzeke eta erabilgarriago egiteko modu bat. Fitxategiak, hots, dokumentuak, argazkiak, bideoak... gordetzen dituenak agerian eta ikusgai dagoen eduki horretaz gain beste eduki estra edo ezkutu bat dauka, esaterako, fitxategia noiz sortu zen, nork eta zein aplikaziorekin sortu zuen, nor izan zen azkena fitxategia aldatzen, argazkia egin zeneko lekuaren kokapena, etab. Horrela, ordenagailuetan gordetako fitxategien gainean saguarekin eskuin-botoia klikatuz eta “Ezaugarriak” aukeratuz, beren metadatuak azter-



Forentse informatikoaren lana ebidentzia digitalak bildu, analizatu eta aurkeztea da. GETTY

tu daitezke. Mezu elektronikoa bat jasotzen denean bere iturburu kodea kopia eta Google-n “Messageheader” aplikaziorekin bere metadatuak arakatu daitezke, mezua bidali duenaren domeinua, IP helbidea (goiburuko izenaz haragoko informazioa), edo mezua bidali denetik egin duen gailu zerbitzarietako ibilbidea. X-n (Twitter) txioa botatzen denean, bere inguruko metadatuak tresna egokiekin aztertu daitezke eta, esaterako, bere antzeko beste txio batzuk lortu.

Mezu elektronikoen, dokumentuen eta transakzioen inguruko metadatuak aztertzean, forentseak denbora-lerro zehatza ezar dezake, hots, mezu elektronikoa baten datuen eta dokumentu baten sorrera-datuen arteko erlazioa ezar dezake. Eta korrelazio horretatik azterna garrantzitsuak atzeman ditzake, epaitegietan froga moduan erabiltzeko. Hortaz, forentse informatikoaren lana izango da konputagailuekin lan egiterakoan ogi apurren moduan utzitako aztarnak atzemaitea eta ebidentzia moduan jasotzea. •



# BEHATXULO[TIK

Juantxo EGAÑA



RICARDO MARTIN. PHOTOCARTE. KUTXATEKA.

## BASARRI, IRABOLA ETA ALKAIN, 1935EKO BERTSOLARI EGUNEAN

Artikuluak ilustratzen duen argazkia irudi historikoa da, eta denboraren igarotzea ere nabaria, izan duen narriadura bezala. 1935eko urtarrilaren 20an, Donostian, Bertsolari Eguna ospatu zen Kursaal Handiko Poxpolin Antzokian. "El Día" egunkariak dokumentatu zuen Telesforo Monzon buru zuen Euskaltzaleak elkarteak antolatutako ekitaldia. Egun hartan, bertsolariak "Udarregi" sarian hartu zuten parte. Kronikariak bere artikuluan adierazi zuenez, «bertsolariak, bi aulki ilaratan lerroatuta, eguneko heroiak dira». Guztira, 19 bertsolariak parte hartu zuten, eta ekitaldiak hiru orduko iraupena izan zuen. Artikulugileak deskribatzen duenez, «inoiz ezin izan genuen

imaginatu halako alturara iritsiko zenik bertsolarien inspirazioa... trebetasun mirari bat zen hura». Inazio Eizmendi "Basarri", jatorriz Zarauzkoa eta artean 21 urte besterik ez zituena, lehenengo bertsolari txapelketatzat hartzen den lehiaketako irabazlea izan zen. Bigarren Matxin Irabola geratu zen, Senpereko bertsolaria, hilabete batzuk geroago hil zena. Eta hirugarrena Akilino Izagirre izan zen, azpeitiarra. Ricardo Martinen argazkia Eusko Gaztedi-ren egoitzan egindako bazkariaren ondoren ateratakoa da, eta bertan Inazio Eizmendi, Matxin Irabola eta Fernando Alkain ageri dira, txapelketan laugarren izan zena.



# ENTZUN. HITZ EGIN

Hitz egiteko,  
entzun egiten  
dugulako.

*naiz:irratia*

**naiz:irratia**

Donostia 93.8 / Urola 91.8 / Goierri 102.2 / Legazpi 94.6 /  
Bilbo 92.2 / Gernika 96.7 / Durango 97.4 / Gasteiz 91.5 /  
Bortziriak 103.1 / Leitza 95.1

irratia.naiz.eus

